

EASO KAPER GREGORIANOAREN IBILBIDEA

1995-2026

LG D 00285-2026





Aurkibidea¹

Hitzaurrea	2
1.- Kantu gregorianoa polifoniaren sehaska	4
2.- Easo Kapera Gregorianoko taldekideak	6
3.- Easo Kapera Gregorianoaren historia	11
3.1.- Sorrera	11
3.2.- Garapena	12
3.3.- Etorkizuna	15
4.- Ibilbidearen emaitzak	17
4.1.- Emanaldiak	17
4.2.- Errepertorioa	33
4.3.- Plazaratutako diskoak	41
4.4.- “Gregorianoa doinuetan kulunkan”	45
5.- Ibilbidearen balorazioa	46
5.1.- Aipamen batzuk	47
5.2.- Taldekideen balorazioa	50



1. Txosten hau, Demetrio Esnaolaren, Xabier Garagorriren eta Santos Sarasolaren artean atondu da.

HITZ AURREA


Duela hogeita hamar urte, zertan sartzen ginen gehiegi jabetu gabe, gaztetan abestutako gregorianoari hautsak kendu eta berriro abesten hasi ginen. Urteak aurrera doaz. Batez beste, laurogeita hiru urte ditugu, eta nahiz eta, bere tamainan, oraindik abesteko sasoian gauden, bizitzaren legeak guretzat ere balio duela jabetzen gara. Easo Kapera Gregorianoaren sorreraren hogeita hamargarren urteurrena, abagunea da gure ibilbidearen testigantza uzteko.

Gure esperientzia ez da musikaren historiaren liburu handietan azalduko, baina badu bere txokoa, eta horren testigantza uztea merezi duela uste dugu. Ez da inoiz izan gureak bezalako ezaugarriak dituen abestalde gregoriorik, ezta izango ere. Ez gure taldea onena delako eta hoberik izango ez delako, taldekideen ezaugarriak bereziak eta errepika ezinak direlako baizik.

Gure ondorengo belaunaldiek guk baino aldaketa gehiago ezagutuko dituzte ziu- rrenik, baina ez gureak bezalakoak. Guk ezagutu ditugunak bereziak dira eta ez dira errepikatuko. Garai guztietan izan dira aldaketak, baina guri bizitza egokitu zaigun garaian bezainbeste, inoiz ez. Joan den gizaldiko 1936.eko Gerra Zibilaren ondorengo urteetan, familia euskaldunetan jaiotako belaunaldikoak gara gehie- nok. Geroztik, gizartearen eta bizitzeko ohituren eta balioen aldaketa ugari ger- tatu dira: politikan, ekonomian, teknologian, familiaren egituran, feminismoan, hizkuntzaren eta hezkuntzaren inguruan, erlijioaren inguruan, etab. Beharbada, munduaren globalizazioaren, informazioaren eta komunikazioaren teknologia ber- rien eraginak dira nabarmenenak. Guri egokitu zaigu adimen artifizialaren lehen urratsen eta zahartzaro berriaren lehen testigu izatea. Guri egokitu zaigu zurrun- bilo horretan gauza batzuetan eragile eta besteetan eramaile izatea. Bizitza ego- kitu zaigun garaia aldaketaz eta gatazkaz bete baina aberatsa izan da.

Epe horretan, bizitzaren esparru askotan gertatu dira aldaketak, baina, kantu gre- gorianoa Eliza Katolikoaren kantu ofiziala eta bere tradizioan oinarritzen den adierazpena izanik, bereziki erlijioaren inguruan gure belaunaldian gertatu diren aldaketen gainbegiratu egingo dugu. Denok kristautasun soziologiko baten ba- besean hezi ginen. Gure familiek eta gizarteak, Eliza Katolikoaren dogmak eta betebeharrak inolako zalantzarik gabe, arnasa hartzen den moduan, onartzen zi- tuzten eta onartzen genituen. Nerabezaroan, gehienok 12-13 urterekin, semina- rioetan sartu ginen apaiz edo erlijioso izateko. Beste gauzen artean, latina ulertzen eta gregorianoa abesten ikasi genuen. Joan den gizaldiko hirurogei-hirurogeita hamar urte bitartean, seminarioan ginela, aurreko pentsamoldeak krisian jarri ziren, erlijioa barne. Kristautasun soziologiko batetik kristautasun kritiko eta per- tsonalizatu batera bidea egitea egokitu zitzaigun. Geroztik, gutako bakoitzak bere ibilbide profesionala eta espirituala egin du. Seminarioa edo apaizgintza utzi eta lanbide desberdinetan aritu gara, baina bat gatoz Jainkoa eta erlijioa beste era batean ulertzerakoan.

Gu jaiotako gizartearen eta oraingoaren artean, lehen esan bezala, alde izugarriak daude, eta erlijioaren ikuspegia ere erruz aldatu da. Guk, aldiz, nahiz eta Eliza Katoliko ofiziala ikuspegi kritikoz begiratzen dugun, lehen kristauen garaian eta Erdi Aroko gizartearen sortutako Eliza Katolikoaren kantu ofiziala den gregorianoa latinez abesten dugu. Zentzurik ba al du? Bizitzak hari asko ditu eta kontraesanak egotea ez da batere harriztekoa. Dirudienez, erabakiak hartzerakoan, lehendabizi bihotzak esaten du zer egin eta ondoren burua saiatzen da bihotzak esandakoa arrazoitzen. Gregorianoa abestea erabaki dugunean, nostalgia puntu bat egon daiteke? Ziurrenik bai, zergatik ez? Baina elkartearen beste arrazoi batek latinez esaten denarekin lotura izan dezake: “Pares cum paribus facillime congregantur”,



hau da, antzekoak erraz elkartzen dira. Gainera, abestea eta bereziki gregorianoa abestea mesedegarria da norberaren gorputzaren arnasketarako, garunaren osasunerako eta bihotzaren lasaitasun eta bakerako. Baina badira beste arrazoi batzuk kantu gregorianoa ulertzeko erarekin zerikusia dutenak. Kantu gregorianoa ez da soilik Eliza Katolikoaren elizkizunetan abesteko kantu-sorta; gordetzea mezezi duen gizakion kultur ondarea ere bada, eta baita ere, kristautasunaz haratago, gizakion garapenerako beharrezkoa zaigun barnetasunaren esperientzia bizitzeko, eta, bere kasuan, Jainkoaren misteriora hurbiltzeko bidea.

Laburbilduz, Easo Kapera Gregorianoaren ezaugarriak bereziak dira eta ez dira errepikatuko: apaiz edo erlijioso izateko seminarioetan latina eta gregorianoa abesten ikasitakoak; familia euskaldunetan jaio eta harremanak eta entseguak euskaraz egiten dituztenak; 30 urteko ibilbidearen ondoren, batez beste, laurogei urtetik gorako taldea osatzen eta abesten jarraitzen dutenak; belaunaldi berekoak eta oroimen ugari partekatzen dituztenak; latinez idatzitako testuak ulertuz eta testu horien jatorria kokatuz, era esanguratsuan abesteko gai direnak.

Gure ibilbidea bukatzeko zorian dago, baina, gure pozerako, Easo Abesbatzak jarraipena eman nahi dio kantu gregoriarori. Aditua den zuzendari baten gidaritzapean, gazte-talde bat hasi da erreleboa hartzen. Bide berriak irekiko dituzte eta gurea bezain bide luzea eta emankorra egitea opa diegu. Horrela bada, garaia iristen zaienean izango dute, guk bezala, zer kontatu.

Atariko hitz hauek osatzeko, eskerrak eman Easo Abesbatzari, Lazkaoko beneditarrei eta taldearen zuzendari izan diren Aita Xabier Irastorza eta Demetrio Esnaolari.

Easo Abesbatzaren babes eta laguntzarik gabe gure ibilbidea askoz ere mugatua izango zen. Easo Abesbatza itzal handiko erakundea da eta bertako zuzendaritzak harreman eraginkorrek ditu emanaldiak antolatzeko garaian. Horri esker, gure kabuz lortuko genituzkeen emanaldiak baino askoz ere gehiago lortu ditugu. Bestetik, Easo Abesbatzaren barruan era askotako abestaldeak daude. Horrek aukerak zabaldu dizkigu emanaldi baten barruan beste abestalde horiekin batera aritzeko.

Lazkaoko beneditar komunitatearen harrera eta abegikortasuna eskertzekoa da. Aita Xabier Irastorza, gure lehen zuzendaria izateko onespena eman eta geroztik beraien egoitzan egin izan ditugu ostiralero entseguak ia hamabost urtetan. Guxienez 40 emanaldietan parte hartu izan dugu beraiek antolatutako mezetan eta kontzertuetan, sarritan Aita Xabierrek zuzentzen zuen emakumezko abesbatzarekin batera. Beraien eraginez parte hartu izan dugu ia urtero “Astotxo egunean” Lazkaoko zistertarren komentuan, eta sarritan Belloc-eko eta Oñatiko beneditarren komentuan. Beti harrera ona eta esku zabala, gure partaidetza eskertuz hitzez eta mokadu goxoak prestatuz.

Easo Kapera Gregorianoaren izaera, lehen aipatutako taldekideen ezaugarrietan oinarritzen da, baina Aita Xabier Irastorzaren, eta Demetrio Esnaolaren, bi zuzendari hauen eragina erabakigarria izan da. Biak Solesmes-eko eskolaren jarraitzaileak izan dira, eta jakin dute gregorianoa ulertzeko era hori gure taldearen ezaugarrietara eta ahotsetara egokitzen. Biak kantu gregorianoan adituak eta, bai kanta bere izaerarekin, zuzendaritza-estilo demokratiko eta partehartzailea, hau da, hobekuntzaren etengabeko bilaketa, kalitate-eskakizuna eta erabakiak harterakoan abesbatzaren parte-hartzea uztartzen jakin dutenak.

Eskerrak zuei ere.

Lehen Easo Kapera Gregorianista Sorrera Seminarioan.



Eskerretik eskuinera: Santos Sarasola, Mikel Lasquibar, Ramón Fernandez, Juan Jesus Larraz, Jexusmari Mujika, Joxan Arbelaiz, Aita Xabier Irastorza beneditarra, Eusebio Agote, Antonio Mendiluze, Xabier Garagorri, Miguel Arbelaiz, Demetrio Esnaola, Antonio Campos.

1 KANTU GREGORIANO POLIFONIAREN SEHASKA

Gregorianoa musika atsegina, dotorea, barnekoia, espirituala, erlijiosoa, barea, lasaitasuna sortzen duena, otoitzerako ezin hobea eta meditazio-munduan murgiltzeko egokia, arte musikalaren kabi eta oinarria.

Kristau-herriaren antzinako kantutegia. Elizkizunetako liturgia-jardunetako kantu-sorta. Era desberdinean edo beste modu batean otoitz egiteko aukera ezin hobea. Musika-mota honekin otoitz egiten dutenak Jainko Aitarekin elkartzeko dira monasterioetan bizi direnak. Gregorianoa, aho-musika baino gehiago, Jainkoagandik Idazteuneko testuen bitartez datorkigun bere hitz kantatua izateaz gain, gorazarre bihurturik berarengana itzultzen dugun otoitza da.

Ez da kristauontzat edo Jainkoarengan sinesten dutenentzat soilik; musika baketzaile eta lasaigarri honen melodia eztekin blaitzen den edonorentzat ere bada bihotz-altxagarri. Gregorianoa ez da kanpoan, aire zabalean, kantatzeko egina. Ezta ikuskizun-aretoetako kantua ere, grabazio-estudioetako ere ez. Barnetasun- eta otoitz-giro gozoan kantatzekoa da. Ez da Liturgia-ospakizunetara egokitutako kantua soilik, Liturgia kantua berbera da.

Euskal Herriko eliza eta parroketan, meza- eta bezpera-ospakizunetan antzina-antzinatik bizirik iraun du, nahiz eta, gaur egun, elizkizunetan oso gutxi entzuten den kantua izan. Garai batean, kristautasuna nagusi zenean, gure elizetako



Silosko Monastegiko eskultura.

otoitz-jardunaldietan erabiltzen zen musika-errepertorio bakarretakoa zen. Adibide bezala, aipa dezagun Gipuzkoan Goierriko Arama herrian eliztarrek buruz zekizkiten igande guztietako Meza-Bezperetako pieza gregoriano propioak kantatzeko ohitura harrigarria.

Zer da kantu gregorianoa, bada? Aipa ditzagun, labur bederen, bere sorrera eta ezaugarriak.

Lehenengo kristauek musikara jo zuten otoitz-jardunaldiak ospatzeko, sinagogetan Salmoak erabiliz (San Paulok salmoak, himnoak eta kantu espiritualak aipatzen ditu). Kristautasuna zabalitzen zihoan heinean, tokian tokiko ohiturekin eta tradizioarekin lotuta zeuden kantutegi bereziak sortzen joan ziren munduan zehar, hala nola, errito anbrosiarra Milanen, liturgia erromatarra Erroman, mozarabea edo bisigotikoa Iberiar Penintsulan, Galikanoa Frantzian edota Benevento-koa Italia Hegoaldean. Liturgia-er berdintasunaren aurrean, Elizak liturgia hauek elkartu beharra ikusi zuen, batez ere mezatako liturgia ospakizunean.


“Gregoriano” izena San Gregorio Handia Aita Santuarengandik (590-604) dator. Ez berari zor zaiolako egile-lana edo autoretza, garai hartako eliz kantuen bilduma nagusia egin zuelako

baino, kristauen liturgia-ospakizunetan erabiltzeko. Geroago, Karlomagno, kristau egin zenetik, Erromako erritoa eta Frantziako errito Galikanoa batu zituen, gaur “gregoriano” deitzen duguna sortuz. Lehen testuak VIII. mende-koak dira eta gaur egun nahikoa galduta egon arren, tradizioa mantentzen da, besteak beste Leiren, Santo Domingo de Silosen (Burgos), Solesmes-en (Frantzia) eta munduko beste hainbat monasterio handitan.

Zein dira kantu gregorianoaren ezaugarriak? Hona, modu teknikoan esanda: Kantu laua, monodikoa, diatonikoa, modala, erritmo askekoa, Eliza katolikoaren liturgiako kantu ofiziala, “a capella” (instrumenturik gabe) interpretatzen dena, organoa izan ezik. Kantu laua deitzen zaio ahots batez kantatzen delako.

Laburbilduz, kantu gregorianoa musika liturgiakoaren mota bat da, erritu katolikoan mezatan erabiltzen ziren kantuen errepertorioa. Doinuarekin batera doan testua barneratzeko eta adierazgarriagoa egiteko meditazio-otoitz gisa jaio zen. Latinez konposatutako eliz kantuen saila da, monjeek eta mojek monasterio barruko otoitzaldietan Jainkoa goratzeko erabiltzen zuten otoitz kantatua.

Easo Kapera Gregorianista osoan. 1997-98



Eskerretik eskuinera: Ramón Fernandez, Martín Garin, Santos Sarasola, Julen Bereziartua, Joxe Ostolaza, Jexusmari Mujika, Miguel Arbelaz, Xabier Garagorri, Paulo Agirre, Joxan Arbelaz, Demetrio Esnaola, Antonio Mendiluze, Aita Xabier Irastorza, Eusebio Agote, Jose Javier Berastegi, Juan Jesus Larraz, Antonio Campos, Iñigo Alberdi, Mikel Lasquibar, Elías Jauregi, Moises Gonzalez.

2 EASO KAPERA GREGORIANOKO TALDEKIDEAK

Abeslariak	Urteak taldean	Kantu gregorianoan lehen prestakuntza	Lanbidea
Paulo AGIRRE EZEIZA 1942-01-15, Errezil	1995-2016	Seminarioa-Donostia	Irakaslea
Eusebio AGOTE ELOLA 1945-03-04, Azpeitia	1995-2026	Seminarioa-Donostia	Ekonomialaria
Miguel ARBELAIZ MITXELENA 1941-01-07, Errenteria	1995-2026	Seminarioa-Donostia	Banku-langilea
Joxan ARBELAIZ MITXELENA 1946-03-02, Errenteria	1995-2009	Seminarioa-Donostia	Irakaslea
Joxe ARREGI OLAIZOLA 1952-11-08, Azpeitia	2018-2026	Frantziskotarrak -Arantzazu	Irakaslea
Jose Manuel BALERDI LARRUSKAIN 1944-06-25, Hondarribia	2000-2016	Seminarioa-Donostia	Enpresaria

Abeslariak	Urteak taldean	Kantu gregorianoan lehen prestakuntza	Lanbidea
Jose Javier BERAŠTEGI LAKUNZA 1943-04-25, Etxarri Aranatz	1996-2007	Beneditarrak-Lazkao	Banku-langilea
Julen BEREZIARTUA ODRIOZOLA 1934-07-10, Lazkao	1995-2009	Beneditarrak-Lazkao	Banku-langilea
Antonio CAMPOS ILLARRAMENDI 1942-06-15, Orio	1995-2026	Seminarioa-Donostia	Banku-langilea
Demetrio ESNAOLA OLLAKINDIA 1937-12-22, Lazkao	1995-2026	Seminarioa-Donostia	Irakaslea
Ramon FERNANDEZ ETXABE 1941-11-10, Pasaia	1995-2014	Seminarioa-Donostia	Medikua
Xabier GARAGORRI YARZA 1944-07-24, Andoain	1995-2026	Seminarioa-Donostia	Irakaslea
Martin GARIN URKIOLA 1941-05-10, Beasain	1997-2012	Seminarioa-Donostia	Irakaslea
Moises GONZALEZ ARISTIZABAL 1942-01-11, Oiartzun	1995-2026	Sakramentinoak-Tolosa	Administrazio-ko langilea
Elias JAUREGI BEREZIARTU 1941-07-16, Urretxu	1997-2026	Beneditarrak-Lazkao	Irakaslea
Patxi LARRAÑAGA LARRAÑAGA 1937-04-11, Azkoitia	2007-2012	Lasalletarrak	Administrazio-ko langilea
Juan Jesus LARRAZ SORABILLA 1944-12-12, Leitza	1996-2012	Seminarioa-Iruñea	Medikua
Mikel LASKIBAR GOIKOETXEA 1942-03-12, Zumaia	1995-2014	Seminarioa-Donostia	Irakaslea
Antonio MENDILUZE GOÑI 1934-01-15, Astigarraga	1995-2006	Seminarioa-Donostia	Bikoizlea
Jexumari MUJIKI ARAKISTAIN 1946-09-22, Aizarna	1995-2026	Seminarioa-Donostia	Irakaslea
Juan Jose ONANDIA ATXA 1939-05-06, Andoain	1996-2002	Beneditarrak-Lazkao	Administrazio-ko langilea
Joxe OSTOLAZA LINAZASORO 1940-02-11, Zumaia	1995-2026	Seminarioa-Donostia	Irakaslea
Santos SARASOLA ZELAIA 1945-10-31, Donostia	1995-2026	Seminarioa-Donostia	Irakaslea

Ezin ahaztu, gure artetik joan diren taldekideak:

Antonio MENDILUZE (+2005), Joxan ARBELAIZ (+2009), Julen BEREZIARTUA (+2010), Martin GARIN (+2012), Aita Xabier IRASTORZA (+2017), Patxi LARRAÑAGA (+2022).

Requiem aeternam dona eis Domine et lux perpetua luceat eis.

ZUZENDARIAK

• Aita Xabier IRASTORZA OSB (1995-2009)

Kapera gregorianoaren lehen zuzendaria. Lazkaoko herrian jaio (1933-11-21) eta txikitatik kantu gregorianoaren melodiak jaso zituen bertako monje beneditarren monasterioan. Bertan hasi zen gregorianoa ikasten tiple bezala lehendabizi eta komunitateko monje zelarik gero.

Gregoriano-ikasketa praktikoak sakondu zituen Solesmesko beneditarren monasterioan, A. Joseph Gajard maisu beneditar handiaren gidaritzapean, eta Lazkaoko komunitateko kantu-zuzendari egin zuten.

AHISGREko –Kantu Gregorianoaren Hispaniako Elkartea– Batzorde Teknikoko kidea zen. Gipuzkoako Elizbarrutiko kantu liturgikoaren arduraduna ere izan zen. Easo Kapera Gregorianoa zuzendu zuen 1995etik 2009ra arte, kontzertu eta ospakizun liturgiko ugartan parte hartuz. Lazkaoko monasterioko fraide izanik, gustukoa zuen kaperaren kantua euren elizako ospakizun nagusietan.

Bere zuzendaritzapean grabatu ziren kantu gregorianoko hainbat disko, hauetan nagusi lau diskoz osaturiko *Cantate Domino* bilduma: *Puer Natus*; *Pange Lingua*; *Gaude, Maria*; *Attende, Domine*.


Lazkaon zendu zen (2017-03-17)

• Demetrio ESNAOLA (2009-2025)


Kapera gregorianoaren zuzendaria da gaur egun. Lazkao herrian jaioa (1937-12-22) eta txikitatik kantu gregorianoaren doinu zoragarrietan hezia bertako monje beneditarren monasterioan.

Apaiz-ikasketak egin zituen Donostiako Seminarioan eta bertako Schola gregorianoko partaide izan zen, lehendabizi kantore bezala eta kantu gregorianoaren maisu bezala ondoren. Kantu-ikasketak egin zituen Montserrateko monasterioan liturgia eta kantu gregorianoaren maisu nagusiaren eskutik.

Geroztik harremanak izan ditu monastegi ezberdinetako gregoriano-irakasleekin; horien artean azpimarratzekoa da bere formazioa Frantziako Solesmes-eko Abadian, azken hau baita gaur egun kantu gregorianoa gehien lantzen eta ikertzen den lekua eta, liturgia eta otoitzaldietan, melodia hauek egun osoan zehar entzuten diren leku bakarretariko bat. Gregoriano-ikertzaile eta zale sutsua da. “Gregoriano doinuetan kulunkan” apunte-liburuan jaso ditu euskaraz testu eta musika gregorianoen ezaugarriak eta bere interpretazioari buruzko teoria, lege eta arauak.



Aita Xabier Irastorza



Demetrio Esnaola

ORGANISTAK

Gure kaperaren ohore handienetako bat da organoan lagundu diguten organistena. Goi-mailako kontzertuak ematen dituzten Oscar Candendo eta Ana Belen Garcia eta bi horietatik aparte ere, gure kantua bikain lagundu izan duten Iñigo Alberdi, Lontxo Ohiartzabal eta Luis Aranalde. Oso gutxik erakutsi dezakete aldamenean hauen kalitateko organistak eta, zer esan gainera, lagun handiak. Orain dela 30 urte hasi ziren gure ondoan lehenengo biak, kantua lagundu eta horiei buruzko konpositore handien komentarioak eta aparteko obrak interpretatuz.



Oskar Candendo



Iñigo Alberdi



Ana Belen Garcia



Lontxo Oihartzabal



Luis Aranalde

IRAKASLEAK

Gaztetan, apaizgorako edo fraidetzarako seminarioetan, oro har musikaren eta bereziki gregorianoaren oinarri teorikoak geureganatzen eta abesten irakatsi ziguten irakasleak izan genituen. Horiek daude gure prestakuntzaren oinarrian. Geroztik, taldeko zenbaitek oinarrizko prestakuntza hori sakontzeko aukera izan zuten Salamancan Aita Manzarragarekin eta Montserrateko beneditarrekin.

Easo Kapera Gregorianoaren ibilbidean ondorengo irakasleak izan ditugu:

- **Daniel SAULNIER, Solesmes-eko monasterioko beneditarra (+2023/04/23).**

Ikastaroak: 1996ko Aste Santuan, apirilaren 8tik 13ra, eta 1998ko Aste Santuan, apirilaren 13tik 18ra.

Dom Jean Claire-ren ikaslea eta idazkaria, 2006tik aurrera Solesmes-eko Abadiako koruaren zuzendaria eta “Paleographie musicale” eta “Études Grégoriennes” aldizkariaren zuzendaria. Kantu gregorianoari buruzko ikerketa-argitalpen ugari ditu. Kantu gregorianoa hedatzeko ikastaldi ugari eman ditu eta hizkuntza desberdinetara itzuli dira *Chant Grégorien* eskuliburua eta *Les Modes Grégoriens* obra.



- **Laurentino SAEZ DE BURUAGA, beneditarra.**

Ikastaroa: 1997ko Aste Santuan, martxoaren 31tik apirilaren 5era, Escorial (Madril)

Arabako Gauna herrian jaioa (1931). Solesmes-eko Dom Joseph Gajard, Dom Jean Claire eta Dom Eugène Cardine izan zituen irakasle, eta Parisko Institutu gregorianoan diplomatua zen. “Asociación Hispana para el Estudio del Canto Gregoriano” erakundeko lehen idazkaria eta kantu gregorianoaren dinamizatzailea izan da. Bere zuzendaritzapean, kantu gregorianoaren, mozarabearen eta Antzinako Musikaren CDak plazaratu dira. “Schola Antiqua” Eskolaniaren sortzailea da.



- **Juan Carlos ASENSIO**

Ikastaroa: 2005eko otsailaren 25etik 27ra, Avila.

Gaur egun, Kataluniako “Escuela Superior de Música”-ko, Musikologia Saileko irakaslea da. Era berean, kantu gregorianoaren Masterreko irakaslea da Lugano-ko Unibertsitatean, eta Musika Ondare Liturgikoaren Masterreko zuzendaria Bartzelonako “Ateneu Universitari Sant Pacián”. 1996tik aurrera “Schola Antiqua” abesbatza gregorianoaren zuzendaria eta kantu gregorianoaren Espainiako eta nazioarteko zenbait elkarteren idazkaria eta zuzendaria. “Radio Clásica”ko “Sicut luna perfecta” programa gregorianoaren aurkezlea eta argitalpen ugariaren egilea. Horien artean, hain ezaguna den “*Canto Gregoriano*” liburua (2003).



Easo Kapera Gregorianoaren ondo merezitako kide esanguratsuenen aipamena egin dugu, baina talde guztietan egoten dira lan isila egiten duten soldadu ezezagunak. Partituren kopiak atera eta txukun-txukun pazientzia handiarekin banatu, partituren eta emanaldien artxiboa zaindu... Sukaldeko suaren goxotasuna mantentze-lan horretan Joxe Ostolazaren egitekoa aipagarria izan da.

3 EASO KAPER A GREGORIANOAREN HISTORIA

3.1.- SORRERA

San Bizente elizaren korua eta organoa. Hor gure estreinaldia eta lehen grabazioa, Norberto Almandoz konpositorearen Te Deum Laudamus kantatuz.

Kantu gregorianoaren oinarriak aspalditik genituen jasoak, taldekide izango ginenak apaiztegietan edo komentuetan ibiliaik baikinen, eliz ospakizunetan gregorianoa kantatuz. Horrela betetzen genuen liturgia ospakizunetan gregorianoa eta organoa erabiltzeko agindua. Baina ez genion muzin egiten Pio X aita sainduak, 1903az geroztik, gregoriano-kutsuz eta -oinarriz konposatutako meza polifonikoak abesteari. Otoitza eta barne-sentimendua sortarazten zituen. Bide berri horri jarraituz, musikari ugari, Euskal Herrikoek bereziki, konposatu zituzten era horretako mezak.

Historia honen hasierak 1955-1970 garaian kokatzen gaitu. Geroztik, seminarioetan edo komentuetan ibilitako lagunok, bakoitzak geure lanbidea hartua genuen eta utziak genituen koru baten zaletasun atsegin horiek. Vatikanoko II. Kontzilioaren ondoren, latinezko kantu elizkoiak baztertuak zeuden elizetan, eta horien ordez bertako hizkuntzan sortutako kantu zaharrak nahiz berriak kantatzen ziren.

Taldearen hasiera zeharo ezustean gertatu zen. 1992an, Santo Tomas Lizeoko zuzendaria nintzela, Easo Abesbatzaren bisita izan nuen; Peli Egaña presidentea eta Xalba Rallo Easo koruaren zuzendaria etorri zitzaizkidan, Eskolania sortzeko eta osatzeko mutikoen eske. Kanpaina egin nuen Lizeoko gurasoen bileretan eta Easok izan zuen Eskolania onena osatu zen, goimailako ibilbide artistikoa egin zuena.

1995. urtean, Astigarrako udalak Norberto Almandoz Mendizabalen (1893-1970) oroimen-ekitaldietarako, CD bat ateratzea erabaki zuen, berak konposatutako obrak jasotzeko asmoz. Izan ere, Norberto apaiz musikaria izan zen eta, Sevillako Katedralaren Kapera-maisu kargua irabazirik, euskal kantuen egokitzapenak eta indar handiko eliz konposizioak sortu zituen.

Grabazioan parte hartu zuten Oscar Candendok, Coro Saez-ek eta Gorka Cuestak organoan, Patxi Azpirik pianoan, Lourdes Lekuonak biolontxeloan. Ahots aldetik, talde hauek hartu zuten parte: Easo Eskolania, Jose Luis Aranburu zuzendari; Andra Mari Abesbatza, Jose Manuel Tife zuzendari; Ertizka Otxotea, Peio Mendizabal zuzendari; Astigarrako abesbatza, Andoni Arzallus zuzendari; Easo Abesbatza, Salba Rallo zuzendari.

Easo Abesbatzari enkargatu zioten, besteak beste, “Te Deum laudamus” obra indartsua eta, aldi berean, eztitsua grabatzea. Obra honek zati polifonikoak zituen, baina Norbertok mantendu nahi izan zituen



*San Bizente eliza.
Gure Donostiako
emanaldi gehienaren
aretoa.*

gregoriano zati ugari, polifoniarekin tartekatuz. Berrero bisita izan nuen Lizeoan eta galdetu zidaten ea gregoriano zati horiek interpretatzeko taldea sortu ote nezakeen. Esan eta egin. Garai bateko Donostiako Seminarioko lagunak nituen inguruan, gehienak hezkuntzan eta, zehazki, ikastoletako lanetan, euskara hezkuntzan errotzeko ahaleginean, eta berehala erronka onartu eta inguratu nituen.

CD horren gure zatiaren grabazioa Donostiako San Bizente elizako koruan egin zen, elizako organista titularra Koro Saez lagun genuela. Lehen aldiz kantatzen genuen elkarrekin eta oroitzen naiz nolako komentarioa egin zuen egun horretan, gregoriano-kaperaren kantua goratuz.

Hori izan zen urteetan iraungo zuen Santos Sarasolaren eta Easoren arteko harreman iraunkor eta kolaboratzailearen abiapuntua. Easoko Juntan sartu ninduten eta, bertako gestioen bitartez, kontzertuetan eta elizkizunetan kantatzen hasi ginen han eta hemen, partaidetza ugari izanez. Sorreraz geroztik, Donostiako Easo Koruaren taldea osatzen duen sailetako bat da Easo Kapera Gregorianoa.

3.2.- GARAPENA

Garai hartan salgai jarri zuten Santo Domingo de Silos monasterioko CD-bilduma bat, bere artxiboan lehendik grabatuak zituzten kantu gregorianoak berreditatuz. CD hauek izugarritzko arrakasta izan zuten eta asko saldu ziren. Musika gregorianoak gorakada handia izan zuen eta bai liturgietan eta bai aintzinako musika-zikloetan, festibaletan nahiz hiri-herrietako programetan sartzen hasi ziren. Giro horren laguntzaz, asko ibili ginen garai hartan gregorianoaren altxorra zabaltzen, Espainian eta Frantzia barne.

Hasieran hamar lagun ginen. Laster indartu zen taldea, monasterioetako eta komentuetako fraidegai ohiak elkartuz. Hogei kantari izatera iritsi ginen. Baina, hasieran, dena egiteko genuen. Lehen egitekoa non bilduko ginen erabakitzea izan zen. Lizeoko liburutegian bildu ginen hasierako antolaketan. Zuzendaria aukeratzea izan zen bigarrena. Elizbarrutiko liturgia taldearen musika-arduraduna zen Lazkaoko monasterioko Aita Xabier Irastorza aukeratu genuen. Geroztik Lazkaon, beneditarren etxean biltzen ginen ostiralero, gure asteko lana bukatu eta Lazkaorako txangoa eginez. Aita Xabier Irastorzaren gidaritzapean eta Lazkaon entseguak eginez jarraitu genuen 2009 arte, hau da, bera gaixotu arte. Ondoren, Demetrio Esnaolak hartu zuen taldearen



“Lazkaoko monje beneditarren monastegia.



“Lazkaoko moja zistertarren monastegia.



Estibalizko beneditarren Santa Maria monastegia.

zuzendaritza, eta, geroztik, Easo Abesbatzaren egoitzan egin ditugu entseguak.

Nahiz eta seminarioan oso ohituak ginen gregorianoa kantatzera igandeetako eta jaiegunetako elizkizunetan, ikastaro batzuk gregorianoa espezialistekin egitea erabaki genuen. Horrela, bi urtez izan ginen Solesmesko monasterioan, behin Escorialeko beneditarrek eta beste behin Juan Carlos Asensio adituarekin.

Gregoriano-estiloari buruzko ikerketak ugari ziren. Frantziako Solesmes monasterioko teknika jarraitzea erabaki genuen; izan ere, egin berria zituzten musika honi buruzko transkripzioak eta *Graduale Triplex* izeneko liburuak editatu zuten, San Galo eta Laon notazio pneumatikoak ere barne hartzen zituelarik. IX. eta XIII. mendeetan erabilitako notazio musikalaren sistemak ziren, testu baten gainetik zeinu grafikoak idatziz, tetragrama erabili aurretik kantua interpretazioa lagunduz. Era guztietara, Guido d'Arezzo, Italiako monje beneditarrak sortua zuen tetragrama XI. mendean, baina garai haietan berriak ez ziren zabaltzen gaur egun bezala.

Gure errepertorioaren iturri nagusia *Graduale Triplex* izan da. Baina, era osagarrian, gure gazte-garaian ezaguna zen *Liber Usualis* eta geroztik ezagutu ditugun *Cantus Selecti* eta monjeen *Liber Hymnarius* eta *Antiphonale Monasticum* liburuak ere, aukera bereziko kantuez osatuak, erabili izan ditugu. Ondorengo atalean ikus daitekeenez, errepertorio zabala landu dugu.

Musika gregorianoa otoitserako, barne-meditaziorako eta baketzeko sortua zela jakinik, bide horri jarraitzea erabaki genuen, kantua alde espiritual nabarmenduz. Horrela, Zisterren erabateko antolakuntza burutu zuen Claraval-eko Bernardoren gomendioak kontuan hartuz, harmoniaz eta orekaz kantatzeko eskakizun etengabea errepikatzen zitzaigun. Hauek ziren gregorianoa interpretatzeko bere aholkuak: “*Kantua duintasunez eta seriotasunez hornitua izan dadila, ez lizunkoi eta ez zakar. Gozoa izan dadila, arina izan gabe. Belarria liluratuz bihotza ere hunkitu dezala. Tristura kontsolatu dezala eta haserrea baretu. Kantuak ez dezala testuaren zentzua hustu, baizik eta emankortu*”.

Zer esparrutan kantatuko ote genuen gaia ere planteatu genuen hasieran. Liturgietan bakarrik ala kontzertuetan ere bai? Bi eremuak betetzea erabaki genuen; kontzertu ugari eman genituen, liturgia askotan ere kantatuz.

Ondorengo taulan gure ibilbideko emanaldi guztien laburpena ikus daiteke.



Oinatico Santa Clara de Bidaurreta moja klarisen monastegia.



Lasarteko moja brigiden monastegia. Aste Santuko eta Eguberrietako pregoien aretoa.



Pariseko Saint Louis en l'île eliza. 1996 urteko azaroak 23ko kontzertua.

Emanaldiak	Kopuruak	%
Guztira	395	%100
Emanaldi-motak		
Mezak	102	26,77
Paraliturgiak	19	4,98
Mezak eta kontzertuak	59	15,48
Kontzertuak:		
Gregorianoa soilik	145	37,02
Mistoak (organoa, polifonia...)	62	16,27
Guneak		
Elizak, katedralak, ermitak	205	51,05
Gizonezkoen monasterio eta komentuak	97	25,00
Emakumezkoen monasterio eta komentuak	64	16,31
Antzoki eta beste gune laikoak	29	7,63
Lekuak		
Euskal Herria	347	88,71
• Araba	4	1,04
• Bizkaia	9	2,36
• Gipuzkoa	292	74,80
• Iparraldea	27	7,08
• Nafarroa	15	3,94
Espainia	42	11,08
Frantzia	6	1,05

Zenbaki hauetan okerrak egon daitezke, baina baliagarriak dira Easo Kapera Gregorianoaren izaera eta profila ikusteko:

- Emanaldi-motak aztertuz, eliz liturgiaren barruan kokatzen diren emanaldiak (mezak, paraliturgiak eta meza-kontzertuak) emanaldi guztien %47 dira. Elizaren liturgiatik kanpoko emanaldiak % 53 dira, eta horien barruan % 31 Easoko polifoniako beste abesbatzekin edo organo-kontzertuekin batera emandakoak. Formula misto hori gero eta maizago erabili dugu azken urteetan. Gure taldearen ezaugarri bat da eliz liturgiaren barruan hainbeste emanaldi ospatzea, guztien ia erdiak baitira.
- Mezaren eguneroko testuak eta gregorianoako abestiak (introitoa, graduala, ofertorioa, komunioa) aldatzen direnez, eta gregorianoa hainbeste mezatan abestu dugunez, horrek taldearen beste ezaugarri bat ekarri du: errepertorioa hain zabala izatea. Ezaugarri horren beste arrazoi bat taldearen gregorianoarekiko zaletasuna ere bada. Astean behin egin ditugu entseguak eta hitzartutako emanaldiak prestatzeko erabili ditugu lehentasunez, baina baita kontzertuetan ohikoak ez diren beste abestiak ezagutzeko ere.
- Guneak aztertuz, ez dira %8ra iristen gune laikoetan ospatutako emanaldiak; beste guztiak elizetan.



Ziortzako Kolegiata, monje zistertarren prioretza.

Gregorianoa abesteko ekosistema naturala elizak dira, eta elizen artean bereziki Erdi Arokoak eta kontenplazioaren hautua egin eta gregorianoa eguneroko bizitzan erabili izan duten monasterioak. Elizak gregorianoa emanaldien gune nagusia izatea normalizat hartu beharko genuke, baina bada gure taldearen beste ezaugarri bat: emanaldien ia erdia (%41,31) monje, moja eta fraideen komentu eta monasterioetan izatea.

- Lurraldeak aztertuz, argi dago Euskal Herria dela gure emanaldien esparru nagusia eta bereziki Gipuzkoa.



Solesmesko beneditarren monastegia. Gregorianoaren ikertzailea. Gure formazioaren lekua.

Emanaldi horien guztien artean aipatzekoak dira Donostiako Musika Hamabostaldikoak, “Antzinako Musika”ren sailean bi aldiz eta beste zikloetan beste lau aldiz. Santanderreko Musika Jaialdian (FIS) sei urtetan segidan, urte bakoitzean 2-3 kontzertu emanez, Jakako Santiago Bidearen Nazioarteko Jaialdian, Huescako Katedralean, Louvie-Juzoneko Eliz Musika astean, Parisko St. Louis en l’Île elizan, Yusteko Carlos I enperadorearen Musika Kontzertuetan, Loiolako Inazioren jaiotetxean, mojen eta monjeen monasterioen Espainiako Kongresuan Loiolan, Zenarruzako (Bizkaia) eta Estibalizko (Araba) monasterioetan. Albal-go (Valentzia) eliz musika zikloan, Liebanako (Kantabria) Toribio Sainduaren monasterioan Jubileu urtean, Alacanteko eliz musikaren astean, Avilako Gregoriano Jardunaldietan...

Bitxikeria moduan Albal herriko gertakaria aipatuko dugu. Eliza bete-betea. Ordu beterako programatua zen kontzertuan bi ordu luzez jardun ginen gregorianoa kantatzen, entzuleek eskatu eta eskatu ari zirela; hortik aurrera gure Euskal Herriko kantu erlijiosoaren erakusgai batzuk eskatzean, beste ordu laurden batean jarraitu behar izan genuen.

Emanaldi guztion arrasto iraunkorra utzi dugu plazaratutako grabazioetan. Guztira, aurrerago azaltzen den moduan, 14 CDetan jasotzen dira egindako grabazioak. Horien artean, gregorianoa abesti esanguratsuenak jasotzeko asmoz prestatutako 4 CD dituen “Cantate Domino” bilduma da aipagarriena.

3.3.- ETORKIZUNA

Easo Kaper a Gregorianoan 10 abeslari gara egun eta batez beste 82 urte ditugu. Kopuruz txikiak eta adinez handiak. Aspalditik ari gara taldearen bukaera eta gregorianoaren jarraipena nola bidera ditzakegun pentsatzen.

Bide bat izan zitekeen gure taldean kide berriak sartzea, baina ez da erraza. Saiakerak egin dira Easoko beste abesbatzetako kideak sartzeko, baina ez dugu horien jarraipena lortu. Batetik, gure taldekideen ezaugarriak daude, hau da, latina eta gregorianoa abesten ikasitakoak izateak eta geure artean, entseguetan eta abar, euskaraz egiteak, mugak jartzen ditu. Bestetik, gure emanaldien artean elizkizun ugari izateak ez du errazten belaunaldi berrien ordezkapena.

Gure taldearen azpimultzo bat sortzea izan da beste bide bat. Hau da, betiko taldeak bere ohiko bidean jarraitzen du, baina talde berri bat sortzen da betiko taldearen kide batzuen eta Easoko beste abesbatzetako kideekin, talde berri honek kontzertuetan soilik parte hartzen duelarik. Bide honen saiakera egin zen 2010etik 2015era, baina arrazoi desberdinengatik huts egin zuen.

Une honetan, beste saiakera berri baten atarian gaude. Asier López Iraola, konpositore eta irakaslearen gidaritzapean, “Easo Monodia” taldea sortu da formazio gune bezala, gregorianoa abiapuntutzat hartuz. Euskal Herri osoko antzinako musikan zein folklore eta herri-kantagintzan diharduten abeslariak, gizonezko zein emakumezko, gonbidatu dira taldea osatzeko.

Oraingoan, formazioa da lehenetako.

Formazio-saioetarako abiapuntua gregorianoa da, baina beste tradizio monodikoak ere tartea egingo zaie.

Mendebaldeko monodian kantu

gregorianoa da lekuko zaharrentarikoak,

eta bere garrantzi historikoagatik, bere balio espiritual zein

estetikoarengatik, formazio-saioetarako abiapuntu aproposena da, baina

beste tradizio monodikoak ere lekua egingo zaie, izan kristauak –liturgia

ortodoxoko errepertorioa, adibidez–, izan beste tradizioetakoak –

Japoniako kantu budistak, esaterako–. Aurrerago etorriko dira

emanaldiak, baina lehen urratsa bidea ondo prestatzea da, horretarako

behar den alfabetizazioarekin batera musika hori barneratzeko, bizitzeko,

gozatzeko eta maitatzeko aukera emango duelarik.

Egosten ari den esperientzia berri honek, gure taldearen ezaugarriekin eta ibilbidearekin erkatuz, berrikuntza nabarmenak dakartza. Ezaugarri /dagokionez, adinaren tartean gainera, oinarrian daukagun jatorria eta hasierako prestakuntzak oso desberdinak dira. Gure taldea seminarioetan eta komentuetan ibilia, eta talde berria, antzinako musikan eta herri-kantagintzan dabilzanak. Gure taldearekiko beste berrikuntza nabarmena zera da: gregorianoa gizonezkoek eta emakumezkoek elkarrekin abestea. Beharbada aspaldi-aspaldiko garaietan talde mistoak izango ziren, baina azken garaietan ez da horrelakorik ezagutu. Alde horretatik aitzindariak direla esan daiteke. Ibilbideari dagokionez, errepertorioa eta emanaldien guneak desberdinak izango dira. “**Monodia**” taldearen errepertorioa gurea baino murriztagoa izango da ziurrenik kopuruz, baina zabalagoa, gregorianoaz gainera beste tradizio monodikoak ere barne hartzen baitira. Emanaldien guneak ikuskizun daude “Monodia” taldean, baina emanaldien batez-bestekoari begiratuz, argi dago eliz liturgiako emanaldiak askoz ere gutxiago izango direla gure taldean emandakoak baino, eta antzokietan eta gune laikoetan emandakoak, aldiz, gureak baino gehiago.

Aldaketen aurrean egokitzen asmatzea da biziraupenaren baldintzetako bat. Kantu gregorianoaren habia eta altzoa monasterioetako monjeen eta mojen eguneroko otoitza eta parrokiako elizkizunak izan ziren. Vatikanoko II. Kontzilioak bultzaturiko liturgia-erreformak eta monastegietako bokazioen beherakadak gregorianoaren bizilekua aldatzeko premia ekarri dute. Baldin eta gregorianoak bizirik irautea nahi bada, funtzio eta bizileku berriak aurkitu behar dira. Egoera horretan, gure taldeak, gune eta funtzio berrien bila, elizkizunen eta kontzertuen arteko trantsizio-funtzioa bete du. “Monodia” taldeko kideen ezaugarriak egokiak dira, garai berri hauetan, kantu gregorianoari funtzio eta bizileku berriak aurkitzeko.



*Asier Lopez Iraola,
Easoko “Monodia”
aintzinako
musikaren talde
berriaren
zuzendaria.*

4 IBILBIDEAREN EMAITZAK

4.1.- EMANALDIAK²


1995. urtea

- 1.- “Te Deum laudamus” diskoaren zati gregorianoaren grabazioa (Norberto Almandosi omenaldia)
- 2.- Ekainak 24. Kontzertua: Église Abbatiale Notre Dame, Cagnotte (Frantzia)
- 3.- Urriak 16. Kontzertua: San Bizente eliza, Donostia
- 4.- Urriak 28. Kontzertua: San Bartolome eliza, Elgoibar
- 5.- Abenduak 21. Easo abesbatzaren Eguberriko kontzertua, Victoria Eugenia antzokia, Donostia (hiru abesti)
- 6.- Abenduak 24. Meza eta kontzertua: Beneditarren eliza, Lazkao



1996. urtea

- 1.- Urtarrilak 7. Meza: Zisterreko Santa Ana komentua, Lazkao (Astotxo eguna)
- 2.- Martxoak 15. Kontzertua: Santiago katedrala, Bilbo
- 3.- Martxoak 17. Meza eta kontzertua: Beneditarren eliza, Lazkao
- 4.- Martxoak 26. Kontzertua: Santa Maria basilika, Donostia
- 5.- Apirilak 8tik 13ra. Ikastaroa: Solesmes beneditarren monasterioa (Frantzia) (Daniel Saulnier-en gidaritzapean)
- 6.- Ekainak 2. Meza eta kontzertua: San Bizente eliza, Galilea (Errioxa)
- 7.- Uztailak 30. Meza: Jesuiten San Inazio eliza, Donostia
- 8.- Irailak 21. Kontzertua: San Andres eliza, Baiona (Roger Etcheteri omenaldia)
- 9.- Azaroak 9. Hitzaldi-kontzertua: Arrasate aretoa, Donostia
- 10.- Azaroak 23. Kontzertua: Saint Louis en l'Île eliza, Paris
- 11.- Azaroak 24. Meza: Euskal Etxea, Paris
- 12.- Abenduak 7. Easo abesbatzaren Eguberriko kontzertua: Victoria Eugenia antzokia, Donostia
- 13.- Abenduak 22. Meza eta kontzertua: Beneditarren eliza, Lazkao




1997. urtea

- 1.- Urtarrila 17. Meza: Zisterreko Santa Ana komentua, Lazkao (Astotxo eguna)
- 2.- Otsailak 9. Meza: Beneditarren eliza, Lazkao

2. Aipatzen diren emanaldiez gainera, badira urte batzuetan erreferentzia galdutako beste emanaldi batzuk ere.

- 3.- Martxoak 16. Meza eta kontzertua: Beneditarren eliza, Lazkao
- 4.- Martxoak 29. Meza: San Pedro eliza, Zumaia (Mikel Laskibarren amaren hileta)
- 5.- Martxoaren 31tik apirilaren 5era. Ikastaroa: Beneditarren Santa Cruz del Valle de los Caidos, San Lorenzo del Escorial (Laurentino Saez de Buruagaren gidaritzapean)
- 6.- Apirilak 19. Kontzertua: Miramongo “Matinée” emanaldiak, Euskadiko Orkestraren egoitza, Donostia
- 7.- Maiatzak 24. Kontzertua: Zenarruzako Zistertarren Santa Maria monasterioa, Ziortza-Bolibar
- 8.- Abuztuak 8. Kontzertua: Andra Mari eliza, Bermeo
- 9.- Abuztuak 28. Kontzertua: San Bizente eliza, Donostia (Francisco Escuderori omenaldia)
- 10.- Abuztuak 29. Kontzertua: Andra Maria eliza, Zarautz (Francisco Escuderori omenaldia)
- 11.- Irailak 5. Kontzertua: Arantzazuko Ama eliza, Zizurkil behea
- 12.- Urriak 12. Kontzertua: Andre Mariaren Jasokundea eliza, Legazpia
- 13.- Urriak 17. Kontzertua: Andre Mariaren Jasokundea eliza, Hondarribia
- 14.- Urriak 25. Kontzertua: Santa Ageda eliza, Arrasate (Aita Menni ospitalaren mendeurrena)
- 15.- Azaroak 7. Kontzertua: Santa Maria eliza, Deba
- 16.- Azaroak 14. Kontzertua: Tours-eko San Martin eliza, Lasao-Zestoa
- 17.- Azaroak 21. Kontzertua: Santa Maria eliza, Soraluze
- 18.- Azaroak 29. Bi abesti: Easo abesbatzaren Eguberritako kontzertua: Victoria Eugenia antzokia, Donostia
- 19.- Abenduak 14. Meza: Artzai Ona katedrala, Donostia
- 20.- Abenduak 15. Meza: San Martin eliza, Donostia (Antonio Mendiluzeren emaztearen hileta)
- 21.- Abenduak 16. Kontzertua: Jesuiten San Inazio eliza, Donostia (Francisco Escuderori omenaldia)
- 22.- Abenduak 21. Meza eta kontzertua: Beneditarren eliza, Lazkao
- 23.- Abenduak 26. Kontzertua: Brigiten komentua, Lasarte



1998. urtea

- 1.- Urtarrilak 11. Meza: Zisterreko Santa Ana komentua, Lazkao (Astotxo eguna)
- 2.- Otsaila-martxo. “Cantate Domino” diskoak grabatu nahian (Zumarragako Antigua, Donostiako Seminarioa, Alkizako eliza)
- 3.- Apirilak 2. Kontzertua: Jesusen Bihotzaren eliza, Loiola, Donostia
- 4.- Apirilaren 13tik 18ra. Ikastaroa: Solesmesko Beneditarren monasterioa (Frantzia) (Daniel Saulnier-en gidaritzapean)



- 5.- Maiatzak 9. Kontzertua: Agustin Deunaren komentua, Hernani
- 6.- Maiatzak 16. Kontzertua: Brigiten Santa Kruz komentua, Azkoitia
- 7.- Maiatzak 22. Kontzertua: Santa Klara komentua, Tolosa
- 8.- Ekainak 12. Kontzertua: Frantziskotarren eliza, Atotxa, Donostia
- 9.- Abuztuak 6. Kontzertua: Karmeldarren Santa Teresa komentua, Donostia (Musika hamabostaldia)
- 10.- Abuztuak 7. Kontzertua: Jakako konkatedrala (VII Festival Internacional en el Camino de Santiago)
- 11.- Abuztuak 8. Meza: Santuario de Loreto, Huesca.
- 12.- Abuztuak 8. Kontzertua: Huescako katedrala
- 13.- Abuztuak 10. Kontzertua: San Martin eliza, Louvie-Juzon, Pau, Frantzia
- 14.- Irailak 12. Kontzertua: San Jerónimo de Yuste monasterioa, Cuacos de Yuste (Cáceres)
- 15.- Azaroak 18. Kontzertua: Beneditarren eliza, Lazkao (Maizpide barnetegi-euskaltegikoek antolatuta)
- 16.- Azaroak 20. Kontzertua: Bonanzako Santo Kristo eliza, Pasai Donibane
- 17.- Azaroak 21. Easo abesbatzaren bazkideen aldeko kontzertua: Victoria Eugenia antzokia
- 18.- Abenduak 8. Meza: Zisterarren Santa Ana komentua, Lazkao (Profesa nagusia)
- 19.- Abenduak 12. Kontzertua: Santa Katalina eliza, Mutriku
- 20.- Abenduak 18. Kontzertua: San Bartolome eliza, Ibarra



1999. urtea

- 1.- Urtarrilak 10. Meza: Zisterreko Santa Ana komentua, Lazkao (Astotxo eguna)
- 2.- Martxoak 15. Meza: San Nikolas eliza, Orio (Antonio Camposen amaren hileta)
- 3.- Martxoak 21. Meza-kontzertua: Beneditarren eliza, Lazkao
- 4.- Apirilak 17. Kontzertua: Loiolako basilika, Azpeitia
- 5.- Maiatzak 21. Kontzertua: Andre Mariaren Jasokundea eliza, Beasain
- 6.- Uztailak 11. Meza: Beneditarren eliza, Lazkao
- 7.- Uztailak 17. Kontzertua: Santa Eugenia eliza, Miarritze
- 8.- Uztailak 26. Kontzertua: San Joan Bataitzailea eliza, Donibane Lohitzune
- 9.- Azaroak 21. Meza: Santa Teresa komentua, Donostia (Easoko bazkideen alde)



- 10.- Azaroak 27. Meza: San Joan Bataiatzailea eliza, Arrasate (Telebistaz emateko jaso)
- 11.- Abenduak 11. Kontzertua (abesti bat): Frantziskotarren eliza, Atotxa, Donostia (“Gabonak mintzo” kontzertua)
- 12.- Abenduak 16. Paraliturgia: San Bizente eliza, Donostia
- 13.- Abenduak 26. Meza eta kontzertua: Beneditarren eliza, Lazkao

2000. urtea

- 1.- Urtarrilak 5. Meza: San Migel Goiaingerua eliza, Lazkao (Doroteo Esnaolaren hiletak)
- 2.- Urtarrilak 9. Meza: Zisterreko Santa Ana komentua, Lazkao (Astotxo eguna)
- 3.- Apirilak 1. Kontzertua: Arantzazuko Ama eliza, Zizurkil behea
- 4.- Apirilak 7. Kontzertua: San Joan Bataiatzailea eliza, Irun
- 5.- Apirilak 18. Kontzertua: Santa Lucía eliza, Santander
- 6.- Apirilak 19. Meza: Familia Santua eliza, Donostia (Santos Sarasolaren koinataren hiletak)
- 7.- Apirilak 22. Kontzertua: Santuario de la Bien Aparecida, Cantabria (Liebanako Jubileu urtea)
- 8.- Maiatzak 5. Kontzertua: San Telmo museoa, Donostia (Aita Donostiari omenaldia)
- 9.- Maiatzak 13 eta 14. Entsegu eta ikastaroa: Belloc-eko monasterioa (Aita Xabier Irastorzaren gidaritzapean)
- 10.- Ekainak 3. Meza: San Migel eliza, Leitza (Juan Larrazen amaren hiletak)
- 11.- Ekainak 22. Meza: San Martin eliza, Donostia (Isidro Uzkudunen hiletak)
- 12.- Uztailak 17. Kontzertua: San Joan Bataiatzailea eliza, Donibane Lohitzune
- 13.- Uztailak 29. Kontzertua: Santa Eugenia eliza, Miarritze
- 14.- Abuztuak 11. Kontzertua; Karmeldarren Santa Teresa komentua, Donostia (Musika hamabostaldia)
- 15.- Abuztuak 14. Kontzertua: Santa Cilia eliza, Jaca (IX Festival Internacional en el Camino de Santiago)
- 16.- Urriak 7. Kontzertua: Hirutasun Saindua komentua, Bergara
- 17.- Urriak 28. Meza eta kontzertua: Mikel Deunaren eliza, Iurreta
- 18.- Azaroak 18. “Cantate Domino” diskoen grabazio saiakera: Santa /Kruz komentua, Azkoitia.
- 19.- Abenduak 2. Meza eta kontzertua: Salvatore Deuna eliza, Usurbil
- 20.- Abenduak 3. Meza: Frantziskotarren eliza, Atotxa, Donostia (Easo abesbatzaren bazkideen alde)
- 21.- Abenduak 16. Kontzertua: San Bizente eliza, Donostia (Eguberriko kontzertua)
- 22.- Abenduak 24. Meza eta kontzertua: Beneditarren eliza, Lazkao



2001. urtea

- 1.- Urtarrilak 7. Meza: Zisterreko Santa Ana komentua, Lazkao (Astotxo eguna)
- 2.- Otsailak 17. Kontzertua: Liebanako Santo Toribio monasterioa (Cantabria).
- 3.- Martxoak 24. Meza eta kontzertua: Orioko Nikolas Deunaren eliza.
- 4.- Maiatzak 4. Kontzertua: Hernaniko Dominikarren komentua.
- 5.- Ekainak 2. Kontzertua: Ataungo San Martin eliza
- 6.- Ekainak 9. Kontzertua: Santa Ana ermita, Albal (Valencia)
- 7.- Ekainak 10. Laudes eta Meza: San Juan del Hospital eliza (Valencia)
- 8.- Ekainak 24. Meza eta kontzertua: San Pelaio ermita, Zarautz.
- 9.- Uztailak 2. Hileta elizkizuna: San Martin eliza, Errezil.
- 10.- Uztailak 12. Kontzertua: Joan Bataiatzailea eliza. Donibane Lohitzune
- 11.- Uztailak 14. Kontzertua: San Andres eliza. Baiona
- 12.- Abuztuak 10. Hileta-elizkizuna: Andre Mariaren Jasokundea eliza, Erreterria
- 13.- Abuztuak 20. Meza eta kontzertua: Bernardarren komentua. Santo Domingo de la Calzada.
ERESBIL Errenterian kokatutako musika-artxiboa da eta bere eginkizuna musika-ondarearen eta, batez ere, euskal konpositoreen obraren bilduma, mantentze-lanak eta zabalkundea gauzatzea da. Berak antolatzen du “Musikaste” zikloa eta 2006an erabaki zuen gordea zegoen Sostoaaren meza hori programatzea eta ezagutzera ematea. Easo Kapera Gregorianoari gomendatu zion zeregin hori. Geroztik, meza askotan erabili izan ditugu kantu horiek.

CD honetan Andres Sostoaaren 3. meza jasotzen da:

- 1.- Kyrie, Gloria eta Sanctus
- 2.- Hildakoen ofizioa: Kyrie eta Requiem
- 3.- Salve, Regina

Zuzendaria: Aita Xabier Irastorza

Organoa: Lontxo Oiharzabal



9.- ECOS DEL GREGORIANO ENTRE OLIVOS Y VIÑEDOS 2 CD

I y II Jornadas nacionales de Canto Gregoriano. Ribera del Queiles” (2005 y 2007)

Zonalde horretan antolatatu ziren, 2005 eta 2007 urteetan, musika gregorianoaren emanaldiak. Tuterako merindadeko herrietan, alegia. Testuinguru horretan, zazpi Eskola Gregoriano bildu gintuzten herri ezberdinetan kontzertuak emateko. “Gaudium nostrum” kantu gregorianoaren elkarteak izan zen jardunaldi horien antolatzailea.

Emanaldi horietan talde bakoitzak emandako kantu batzuk bi CDtan bildu zituzten, 2005 urtekoa bat eta 2007koa bestea.

Herri haietako jende asko bildu zen emanaldi horietan. Honela agertzen zen garaiko kroniketan:

“Con un rotundo éxito. Así han concluido las II Jornadas Nacionales de Canto Gregoriano Ribera del Queiles que durante las dos últimas semanas se han desarrollado en las localidades Riberas de Barillas, Murchante, Cascante, Monteagudo, Tulebras y Ablitas.

El éxito cosechado en la primera edición, celebrada en 2005, ha sido superado durante estas segundas jornadas de 2007 en las que cada una de las actuaciones congregó a un gran número de público. Desde la organización se muestran sorprendidos con la buena acogida recibida al mismo tiempo que califican de ‘impresionante’ el buen desarrollo de las mismas”.

10.- LA MÚSICA EN COMILLAS. II CICLO DE MÚSICA CORAL Y DE ÓRGANO (2009)

2009ko abuztuaren 23an, Easo Abesbatzak parte hartu zuen “Musika Korala eta Organoa” II zikloan, Comillas-eko parroquia elizan. Gure organista, ikertzaile eta kontzertista Oscar Candendok “Aita Otaño eta bere garaiko musika” gaiari buruzko hitzaldia eman ondoren Easo Abesbatzak eta Easo Kaperak Gregorianistak emandako kontzertua jasotzen da CD batean. Bertan Jesus Guridiren eta Aita Otañoren obrak entzun daitezke.



4.4.- “GREGORIANO DOINUETAN KULUNKAN” APUNTE-LIBURUAREN AIPAMENA⁴

Ez zait guztiz zuzena edo bidezkoa iruditzen apunte-liburuaren aipamena egitea edo iriztia ematea, ni neu egile edo prestatzaile izanik. Laudorioen intsentsuaren lurrun usainsuetan zorabiatuta erortzeko arriskua ere egon daitekeelako. Ez da inolaz ere nire asmoa. Liburu horren prestakuntzaren berri emateko eskatu didatenez, lan honen zergatia eta xedea xume eta apal argitzen saiatuko naiz. Apunte-liburu honen arrazoiak eta betebeharrak zeintzuk izan diren azalpento bat egiten, besterik gabe.

Lehenik eta behin adierazi behar dut musika gregorianoaren teoria-liburu bat baino ez dela. Ez da musika gregorianoaren inguruan nik neuk sortutako teoria-sistema bat. Gregorianoari dagozkion teoria eta jakintza guztiak gazteleraz, frantsesez eta beste hizkuntzetan argi eta garbi adierazita daude antzinatik gaurdainoko eskuliburuetan. Easo Kaperera Gregorianoaren zuzendari kargu hartu nuenean, nire asmo nagusia beste hizkuntzetako liburuetan idatzita zegoen jakintza hura guztia euskarara itzuli eta gure hiz-

kuntzan ematea izan zen, euskaraz ezer gutxi baitzegoen gregorianoari buruz.

Easo Kaperaren zuzendaritza-kargudun egin nintzenetik bi ardatz nagusiren inguruan mugitu izan naiz: Alde batetik, Seminarioko kantu gregorianoa jasotako heziketa eta formatzea hura gaurkotzea, berritzea eta sakontzea. Musika-munduan ongi jantziak irten ginela uste dut, nahiz gregorianoan –antzinatasun handiko kantu-mota eta kultura musika-lean–, nahiz koru-kantutegi polifonikoa ahotsetara kantatzeko gai ginelarik. Hala ere, Seminarioko gregoriano-hezkuntzak bazituen hainbat hutsune teoria aldetik, barne-hezurdura eta egitura axaletik baino ez genituelako ikasi; gaitasun hau ezinbestekoa zen, adituez osatutako talde gregoriano bat zuzentzeko orduan batez ere. Iruditzen zitzaidan ez nengoela behar bezala prestatuta gregorianoaren mami aberats eta gozoetan nire lagunak trebatzeko eta formatzeko. Lan honi behar bezalako irtenbidea ematearren, inguruan nituen eskuliburuak arakatzeari ekin nion, gregorianoari buruz bertan aurkitu nituen teoria ugariak gure hizkuntza euskarara itzultzen ahaleginduz.

Bestetik, nire bizitzako bigarren ardatz, zutabe eta heldulekuari bere tokitxo emateko prest. Taldekideen eguneroko ama-hizkuntza euskara




4. Demetrio Esnaolak prestatutako “Gregorianoa doinuetan kulunkan” deritzan apunte liburuaren aipamena egiten da. Liburu hori eskuragarri dago Easo Abesbatzaren web gunean: <https://coroeaso.com>

izanik eta gregorianoari buruz ezer gutxi edo ezer ere ez zegoenez gero idatzita, zergatik ez nuen material hori guztia itzulpen txukun batzuen bidez Apunte moduko bilduma batean euskara hutsean burutzen, neure lana erraztearren eta korukide bakoitzak erdarazko gaiak euskaraz eduki zitzan, gregoriano kantu zoragarriez geure mintzairan denok goza genezan? Horrela, Jainkoa errazago gora genezan eta kantu gregorianoaren sekretuak eta azpizehetasunak ulertzeko gai izan gintezan.

Eta horra nire jubilazioa bizitu, indartu eta gozarazi duten bi zutabe bikain eta sendoak. Euskara eta gregorianoa: nire bizitza bete duten irrikazko bi jarduera. Nire egunerokotasunari bizipoza, ilusioa eta entretenimendua eman dioten bi euskarriak. Hobby, zaletasun, adikzio bihurtzeraino, esango nuke nik.

Ez dakit iritzi berekoak izango ote diren “mamotreto” antzeko liburukote hau bere formatu eta egiturarekin eskuetan erori zaienak. Beraiei esker gauzatutako Apunte Liburua izanik, beraiek dira benetako protagonistak eta artisauak. Beraiek dira gure jardunetan jasotako teoria praktikan jartzen dutenak, otoitzaldietan zein emanaldietan. Beraiek dira melodia gregorianoak interpretatzerakoan entzuleak isiltasunera, barne-meditaziora eta otoitzera eramaten dituzten kantari zerutarrak. Hau denon lana da. Bihoazkie beraiei nire eskerrik beroenak. Jarrai dezala Easo Abesbatza orokorrean orain arte bezalako gregorianoarekiko maitasun, leialtasun, laguntasun eta zaletasunak.

Sor dadila korukideen artetik nire lan xume hau gainditu eta areagotuko duen lan ederrago eta bikainagoa.



5 IBILBIDEAREN BALORAZIOA

Ibilbidearen balorazioa irizpide desberdinetan oinarrituz egin daiteke. Adibidez, balorazio kuantitatiboan oinarritzen bagara, lauhun emanaldi inguru eskaini eta hamalau CDtan parte hartu dugu. Horrek, gregoriano musika hedatzeko ahalegin handia egin dugula adierazten du.

Bestetik, gregorianoa abesteko iturri ugari (Graduale triplex, Liber usualis, Antiphonale Monasticum, Liber Hymnarius eta Cantus Selecti) eta abestien erreperitorio zerrenda luzea - lauhundik gora - erabili ditugu. Horrek, guk erabilitako gregoriano musikaren ugaritasuna eta aberastasuna adierazten du.

Gure ibilbidearen arrastoarekin jarraituz, aipagarria da Demetrio Esnaola zuzendariak prestatutako *Gregoriano doinuetan kulunkan* apunte-liburua, musika gregorianoaren teoria eta iruzkinak jasotzen dituen. Gregorianoari dagokionez, euskaraz idatzitako lehen liburua dela esan daiteke. Bernat Etxepareren asmoa osatuz, liburu honen eraginez, gregorianoak ere badu

lekua euskararen plazan: “Euskara, jalgi hadi plazara eta mundura”.

Ekarpen horiek hor geratzen dira, baina aurrera begira zer? Easo Kapera Gregorianoarentzat oso pozgarria da “Easo Monodia Taldea”ren sorrera. Gure aspaldiko kezka izan da musika gregorianoaren ondarea gure eskuetatik beste batzuetara pasatzea eta jarraipena ziurtatzea. Jakin badakigu gure taldearen ezaugarriak dituen talde berririk ezin dela sortu, eta ilusioz eta itxaropenez ikusten dugu bide berriaren sorrera. Hainbeste aldiz abestu dugun Simeon zaharraren “Nunc dimittis” salmoa edo bertsoa egokia izan daiteke talde berriari gure poza adierazteko, ongietorria emateko eta lekukoa uzteko.

Jarraian, gure ibilbidearen balorazio kualitatiboa egiteko, komunikabideetan jasotako aipamen batzuk, gregoriano espezialisten adierazpen batzuk eta gaur egun “Easo Kapera Gregorianoa” osatzen dugun taldekideen balorazioa jasotzen dugu.

5.1.- AIPAMEN BATZUK

KOMUNIKABIDEAK

Gure emanaldien aipamenak jaso izan dira komunikabideetan. Aipamen loratu asko izan dira urteetan zeharreko gure kontzertuei buruzko kritikoen kroniketan. Adibide gisa, Donostiako Musika Hamabostaldiaren baitan San Bizente elizan Aita Donostiaren omenez, bere heriotzaren berrogeita hamar urteurrena oroitzean, 2006ko abuztuaren 31n emandako “Itinerarium Mysticum” kontzertuari buruz, Oscar Candendo organista bakarlaría eta Lontxo Oihartzabal, organo laguntzailea; Zuzendaría Aita Xabier Irastorza beneditarra:

Horien artean Juan Antonio Zubikaraik DEIA egunkarian egindako aipamena jasotzen dugu,

“El concierto de la Capilla Gregoriana Easo” titulado con acierto “Itinerarium Mysticum”, combinó antífonas de gregoriano cantadas a capella con otras con acompañamiento hecho por el P. Donostia y con piezas para órgano basadas en obras gregorianas y compuestas por el mismo autor.

De la actuación del Easo puede destacarse la homogeneidad del conjunto, su tan austera como apropiada belleza tímbrica, las preciosas flexiones modulares y la justa andadura bajo la dirección de Irastorza, virtudes que originan un producto musical tan rico y tan aparentemente “sencillo” como lleno de interioridad y saber profundo, valores propios del gregoriano, patrimonio artístico e histórico de todos, hoy casi desaparecido. Sin exagerar, puede decirse que el hacer del Easo concordaba ayer con los términos “chorus angelorum” o “angelicos testes”, que aparecen en los textos de las obras cantadas”.

Era berean, hauxe zioen María José Cano kritikariak Diario Vasco egunkarian: *“Itinerarium Mysticum fue el título escogido para el recital, que se celebró por la mañana, protagonizado por la Capilla Gregorianista Easo y el organista Oscar Candendo. Ambos se fueron intercalando en un concierto que fue casi una oración. El estilo de las obras monódicas y las más variadas, pero igualmente místicas dieron al encuentro un carácter de especial recogimiento”*

Eta Harkaitz Mendoza musikariak, Berria egunkarian: *“GURE AITA, DONOSTIA ZARENA”*

“Christus Factus est” atala talde laneko arnasketa paregabea izan zen, tractus luzeak hausturirik gabe iragarritz...Zailtasun teknikoa gradual-etan sentitzen da, flexus puntuaren bila abiatzen dira esaldikapen bakoitza eta formata ugariak sakon ahoskatuz. Gregorianista taldeak, zazpi-garren modu gregorianoan idatzitako “Haec dies” guztiz biribildu zuen. Exultemus et laetemus in Domino” amaierako piezan suertatu zen, Candendoren interpretazio bikaina gorai patuz. Lontxo Oihartzabalek organo positibotik lan bikaina azaldu zuen une oro. “In Paradisum”-en hitz zerutiarrak, aita Donostiari zor genion omenaldi beroa itxi zuen”

ADITUAK

Gregorianoko espezialisten adierazpenak gure Kaperá Gregorianistaren kantuari buruz:

Quand le sommet touchait le Ciel

2002-07-26 Ondarroa

(Gn 28,12) Gailurak zerua ukitzen zuenean

Idazlea: LUC AERENS. Diakono iraunkorra, Katekesi eta Pedagogia Erlijiosoko irakaslea Lumen Vitae-n eta Bruselako Goi Mailako Pedagogia Institutuan. Katekesiari buruzko liburu ugariren egilea, elizbarrutiko buru eta elizbarrutiko koordinatzaile izan da hogeitaz urtez Belgika frantseseko pastoral katekesikoaren koordinatzailea.

« A peine le Choeur avait-il terminé les dernières mesures de son premier chant, l’Ubi caritas, que quelques applaudissements fusent, ... aussitôt réprimés par les protestations contenues de l’assemblée déjà recueillie. Le chant grégorien ne s’accommode pas d’effets spectaculaires. Il est tout entier oraison, intériorité, élévation de l’âme, même quand il se fait découvrir, comme ici, en concert.

Celui qui avait introduit la soirée, un professeur d’université, lui-même membre du Choeur de la Chapelle Grégorienne EASO (de San Sebastián, au Pays Basque espagnol), avait pourtant magnifiquement présenté la démarche, il est vrai seulement en langue basque sans doute non maîtrisée par certains, démar-

che qui offrait un chemin spirituel plus qu'un concert classique. Il avait donc clôturé son introduction en demandant de ne pas applaudir après l'interprétation de chaque pièce.

L'incident ne se renouvela pas, et c'est tant mieux. Car la vingtaine d'œuvres grégoriennes présentées en cette soirée de juillet 2002 dans l'église bondée d'un village de pêcheurs, qui est maintenant aussi station balnéaire, éleva chacun vers des sommets.

Les attentes du public étaient sans doute variées. Certains recherchaient une émotion esthétique, tandis que d'autres avaient gravi les sentiers de la montagne basque pour vivre un grand moment de spiritualité. D'autres encore avaient peut-être la nostalgie de la liturgie chrétienne préconciliaire où le chant grégorien était aussi courant que souvent masqué, la plupart du temps par manque de maîtrise et de compétence.

SOMMET SPIRITUEL ET ARTISTIQUE

Le Choeur de la Chapelle Grégorienne EASO offrit, fort heureusement l'extrême inverse. Les vingt et un choristes qui composent ce remarquable groupe atteignent un très haut niveau d'interprétation collective. Les voix individuelles, qui jamais n'empiètent sur la qualité de l'ensemble, sont toutes magnifiquement posées dans une harmonisation qui élèvent les esprits.

Il n'est pas rare de voir des membres de l'assemblée (en liturgie on ne parle pas d'un public) rejoindre, au cours de sa prestation, le Choeur EASO dans la prière.

LE PARCOURS EXEMPLAIRE D'AMOUREUX DE LA LITURGIE

C'est bien, en effet, l'amour de la liturgie qui a conduit ces hommes à fonder leur chorale de chant grégorien en 1995, dans ce Pays Basque où, de toute façon, le chant est à la vie sociale ce que le grégorien est à l'histoire de la liturgie occidentale : une évidence et un enracinement.

Sans être au sens économique du mot des "professionnels" (du fait qu'ils ne vivent pas de leur art), cette vingtaine de professeurs, médecins ou économistes ont en commun d'avoir tous étudiés et pratiqués le chant grégorien, puisque tous sont anciens séminaristes ou prêtres désormais retirés du ministère sacerdotal. La plupart d'ailleurs affirment être disponibles pour exercer à l'avenir les missions pastorales que les animateurs du peuple de Dieu voudront bien leur confier. Ils rendent en tous cas actuellement le service inestimable de conserver et promouvoir une des richesses essentielles du patrimoine liturgique occidental : le chant grégorien.

UNE PRODUCTION IMPRESSIONNANTE

En moins de sept ans, le Choeur de la Chapelle de chant grégorien EASO a déjà à son actif un palmarès discographique impressionnant : cinq disques dont deux se trouvent dans le commerce et un coffret liturgique de quatre disques (également en vente) consacrés aux grands temps liturgiques.

Mais il comptabilise surtout une multitude de concerts et de participations à des festivals plus prestigieux les uns que les autres, tant au Pays Basque que dans d'autres régions de l'Espagne et même en France. Citons entre autres, ses prestations au Cycle de musique religieuse de Santander, au Festival des Abbayes dans les Landes, aux Estives musicales



internationales de Louvie-Juzon, aux concerts jubilaires de la Basilique de Loyola, au Festival international du chemin de St Jacques, etc.

LA PRIERE ET LE TRAVAIL AVEC LES PLUS GRANDS

Il arrive fréquemment que le Choeur EASO anime d'abord la liturgie eucharistique dans une paroisse ou au sein d'un autre rassemblement de croyants, avant de poursuivre par l'interprétation de quelques pièces grégorienne. C'est qu'il considère que le chant grégorien ne se comprend et ne peut se justifier vraiment que dans le cadre de la prière. Qu'elle soit de louange, d'intercession ou d'expression mélodique de la Parole de Dieu.

Mais cette volonté de recherche d'authenticité du chant grégorien ne suffit pas pour permettre au Choeur de la Chapelle de San Sebastian d'atteindre le niveau qui est le sien. Il faut de surcroît un travail rigoureux et permanent. Inlassablement, sous la conduite de son dirigeant, Dom Xavier Irastorza (moine bénédictin de Lazkao), les membres du groupe se retrouvent plusieurs heures chaque vendredi que fait le Bon Dieu. Ils n'hésitent pas, plusieurs fois par an, à participer à des stages de formation dans les endroits les plus réputés du chant grégorien. Qu'il suffise, en effet, de citer les Abbayes de Solesmes ou de Valle de los Caidos à Ma-

drid pour signifier la rigueur, le niveau et la qualité du travail accompli.

Mais savez-vous que rencontrer ce Choeur, c'est vivre en outre des moments d'humour et d'amitié d'une rare profondeur ?

Luc Aerens. Professeur de pédagogie pastorale à Lumen Vitae. Bruxelles- Belgique

2018-10. Abadía de Iso Monjes de Belloc.

Belloc aipatuz, bada monastegi honetan Sœur Marie Véronique izeneko moja bat, bi abadietako musika-arduraduna, gregorianoa biziki maite duena. Goi mailako organista da bera, bere ikasketak gure Easoko Oscar Candendo organistarekin batera egindakoa eta organo-kontzertuak ematen dituena. Berak deitzen gaitu eta interes berezia izaten du gu hara kantatzera joan gaitezen. Urtean behin edo bi aldiz joaten gara, ospakizun liturgiko berezietan. Hara gure zuzendaria Demetriori bidalitako kapera-taldearentzat mezu berezia, frantsesez, honela mintzo zaigula bere iritzi-hitz jakintsuaz:

“Je vais vous donner humblement mon avis sur votre façon de chanter :

. La justesse des voix, oui, vous chantez juste et j'ai remarqué que vous ne baissez pas beaucoup.

. L'accouplement des voix : oui, très bien, c'est très uni. On n'entend une voix qui chante plus fort que les autres. J'ai bien écouté dimanche, j'étais tout près



de vous et j'ai remarqué qu'était très uni, bibazu !

. Ce que j'aime beaucoup dans votre chœur, c'est le legato et la souplesse dans la mélodie.

Gardez ce legato, gardez cette souplesse, c'est une grande qualité.

. J'aime aussi quand vous êtes dans le sommet d'une phrase. Vous ne heurtez pas le sommet, mais vous l'arrondissez : oso ondo. C'est comme ça qu'il faut faire. J'avais un maître en grégorien, l'abbé Bihan, qui comparait les notes hautes des mélodies grégoriennes à des coupoles (cúpulas) d'église et non à les minarets (minarettes de las mezquitas) ; la coupole d'église est arrondie, le minaret est pointu. Il ne faut pas chanter les sommets en les heurtant, mais en les arrondissant. C'est que vous faites et j'aime beaucoup : bibazu!

. Votre chant aide à prier, il élevé l'âme, c'est très beau. Je crois que vous devez continuer comme ça. Voilà, je vous ai donné mon humble avis. La seule chose que je regrette, c'est que vous n'êtes pas très nombreux. Pouvez-vous avoir de nouveaux chanteurs que se joignent à votre groupe ? Ce serait formidable. Mais sinon vous chantez très bien, bibazu ! Sœur Marie Véronique. »

2019-9. Misa en el monasterio de Belloc (URT).

Impresiones de un monje benedictino de la abadía:

“Que le gustaba mucho nuestra forma de cantar el gregoriano: energético y vigoroso a la manera de los euskaldunes, no blandamente y sin fuerza. Le admiró la voz excelente y agradable de los solistas. También valoró el trabajo del director, bien medido (precis) el movimiento de la mano, exacto sin hacer bailar excesivamente los brazos, tal como lo pide el gregoriano. El empaste, el legato y la transmisión del coro le parecieron maravillosos. Porque el canto gregoriano tiene que ser transmisor, para que los oyentes mediten en su interior los textos y se sumerjan en un clima de oración”.

5.2.- TALDEKIDEEN BALORAZIOA

Demetrio ESNAOLA OLLAKINDIA, Zuzendaria

Easo Kapera Gregorianoak, Donostiako Easo Abesbatza Erakundearen ataletako bat izanik, lan eskerga egin du 30 urte hauetan zehar. Orain azken urratsetan denean, ibilaldi honetako zenbait gogapen, iritzi, ikuspegi, inpresio eman gabe ez nuke utzi nahi taldearen bizitza izan den musika eta kantu xarmagarria.

Taldearen izaera aipatuko dut lehenik, bere dohainak eta bertuteak azpimarratuz. Jakin badaikit dohainak eta akatsak nahasi joaten ohi direla gehienetan. Hala ere, kaperari buruzko nire idatziak ez luke benetako amaierarik izanen taldearen goraiamenik egin gabe. Beraiek dira proiektuaren kreatzaile, sustatzaile, bultzatzaile eta errealizatzaile nagusiak. Ni neu koru-zuzendari bezala eta beraiek talde-animatzaile eta proiektu honen sustatzaile, doinu eder hauen transmititzaile bezala. Ale ditzadan, gainetik bada ere, taldetxo honen zenbait dohain nagusi.

- 1.- Musikari adituak Musikaz eta kantuz maitemindurik, arte eder horren mundu zoragarri hori zabal eta sakon ezagutzen dutenak.
- 2.- Kantu gregorianoa bihotz-barnean bizi dutenak, seminarioan edo fraide-etxean edoskitako, xurgatutako mama goxoa ahogozatzen dutenak. Kantu-mota honen sekretu, zirrikitu eta doinu xarmagarrien jakitun handiak direnak. Kantu honen interpretatzaile sakonak entzuleen bihotz-barrenak mugitu eta esnatzen dakitenak.
- 3.- Elkarrekin korua eginaz koru-legeak ongi errespetatu eta gordetzen ahalegintzen direnak, bakoitzaren ahalmenen arabera koru konpaktu bat osatuz, lilura, xarma, gozamina sortzen saiatzen direlarik musika-emanaldietan.
- 4.- Koru-talde zaharkituaren izaera zabalta-sunez eta gogo beroz onartuz eta kontuan izanik, akats eta eragozpen horiek gainditzuten dituztenak, koruari goxotasun bero eta samurra emanaz.
- 5.- Taldetxoa eta adintsuak izatearen gainetik, koruari ukitu berezia ematen saiatzen

direnak. Zailtasunak zailtasun, gregoriano-proiektuari luzaroan eusteko prestasun-jarrera irmo eta sendo mantentzeko prest daudenak. Burugogor xamarra, agian? Edo errealitateari ihes egiteko era?

6.- Gregorianoaren ezaugarri bat den latin hizkuntzaren ezagutzaile trebeak.

7.- Geure erlazio eta harremanak lotzen dituen hizkuntza bakarra euskara izanik, hitzetik hortzera geure harremanak lotzen dituen hizkuntza hau besterik ez da entzuten geure artean, gaztelera edo beste hizkuntzak errespetatuz eta onartuz, noski. Taldearen hizkuntza “ofiziala”, nolabait esateko, euskara dela, alegia.

8.- Lore eta gaitasun hauen guztien gailurrean bat bereizten ausartuko nintzateke: **lagunarte-giro zoragarria**. Elkarrekiko jarrera umoretsua eta anaikorra. Lagunarte-giro jator eta alaipean egoteko, eguna pasatzeko irrikan bizitzea. Honek ez du esan nahi beti txantxa- eta berriketa-aldiak nagusi ditugunik, ezta gutxiago ere; gregorianoaren bihurtzeetan sakontzen lanean hasten garenean, zorrotz eta gogor ekiten diogu zuzendariaren gidaritzapean. Diziplinaren arauak ongi betetzen ditugu, kantu gregorianoak berak seriotasunean murgiltzen gaituelarik.

9.- Bukatu baino lehen, agerian jarri nahi dut taldearen transmisio-gaitasuna edo -jarrera.

Eta nire iritzi-agiria bukatzen dut Bernanos-en “Il faut savoir partir” esaldiari nolabaiteko erantzuna eman. Ikusten denez, idazle frantsesaren aholkuak alferrikakoak izan dira, guri dagokigunean behintzat. Hain gustura sentitu gara kantu zerutar honen doinuetan abesten, ze ezin dugu agurtu betirako deskantsuan utziz, erretiro ezkutuan babestuz eta leku hartuz. Hain gozo bizi dugu gregorianoa geure bihotz-barnean, non ezin baitiogu agur esan eta amaitu, betirako “kantatzeari utziz”. Beste erritmo lasaiago batean, eskaintzen zaizkigun ospakizun liturgikoe-tan kantari jarraitzea aukeratu dugu arnasak eusten digun bitartean. Horixe da duela egun batzuk hartutako erabakia. Beraz, Jainkoa goratuz eta elkarrekin otoitz-kantuaz gozatuz eta disfrutatuz jarraituko dugu.

Nire eskerrik beroena Easo Abesbatza erakunde-ari 30 urtean zehar bere babesa eta laguntza eskaini dizkigulako.

Mila eta mila esker korutxoà osatzen dugun Easo Kaperako partaide korista guztioi, izan zirenei eta gaur egun izaten jarraitzen dutenei, zuek izan baitzarete ilusio eta bizipozaren euskarri zintzo, zutabe gogor eta bizkarrezur sendo. Asko zor dizuedala aitortzen dizuet, asko eman baitidazue gregoriotik at bizitzako alor guztietan. Taldekide batek, adarjotze eta umorez betea, esaten duena gogoratuz: “Hik, Demetrio, ehun urte ere harrapatuko dituk gure kontura”.

ZEIN GOZO TA EDER DEN
ANAIOK ELKARTU ETA DENOK
BATERA JAINKOA GORATU!!!

Moises GONZALEZ ARISTIZABAL

Musika gregorianoa kantatzeko proposatu zidatenean, baiezkoa esan nuen, gehiagi pentsatu gabe. Baziren hogeita hamar urte Sakramentinetako komentua utzi nuela eta esperientzia berri honek orduko bizipen haiek gogoraraziko zizkidala pentsatu nuen.

Komentuan bizi izandako zortzi urte haietan, kantu gregorianoak abesten nituen, bai liturgietan, bai ofizioetan (maitinak, bezperak, tertzia, sexta orduak) etab. Beraz, kuriositatez bete ninduen horiek guztiak gogora ekartzeko aukerak.

Nire kasuan, esan behar dut, bizipen zoragarri- betetako esperientzia izan dela, korukideekin lagunarte jator bat sortu dugulako eta leku asko eta ikusgarriak ezagutzeko aukera eman digulako. Hori guztia niretzat komentuko bizipenen segida izan da.

Eskerrak eman behar dizkizuet, zuekin igarotako urte hauek niretzat oso aberasgarriak izan dire-lako.

Antonio CAMPOS ILLARRAMENDI

Gregorianoa seminarioko urteetan ikasi nuen, baina gregorianoaz gozatzea Easo Kaperà Gregorianoan lortu dut. “Qui bene cantat, bis orat” eta, guk gehienetan ondo abesten dugunez, ototza egiteko ere lagungarria izan zait.

Baina gregorianoak eman didan onena maitasunez inguratuta osatu dugun talde jatorra izan da. Neure aldetik, taldearen jatortasuna eta batasuna azpimarratzen ditut.

Xabier GARAGORRI YARZA

Gaztetan Donostiako seminarioan egunero abesten eta ondoren Parisen Euskal Etxeko Gernika abesbatzan lau urte aritu ondoren, hogeitatu urte pasa nituen, familiako edo lagun arteko giroan noizbehinka euskal kantak izan ezik, era iraunkor batean abestu gabe.

Norberto Almandozen “Te Deum” abestiaren gregoriano-atalak abesteko deitu zidatenean, gregorianoaren doinuak eta abesteko erak urruti nituen. Gogoan ditut hasierako entseguak. Kosta zitzaidan, gutxienez urtebete, ahotsaren emisioa gregorianoaren soseguzko molde barnerakoi erara egokitzen. Hasieran nekatuta bukatzen nituen entseguak, eta pixkana-pixkana gero eta gusturago joan naiz gregorianoa abesten. Gregorianoa abesteko era kanpotik begiratuta, polifoniarekin erkatuz, kontrasterik gabekoa edo monotonoa dirudi, baina zuk abesten duzunean, arnasa luzeko abesteko erak lasaitasuna ekartzen dizu. Aste osoa lanean eta tentsioan pasa ondoren, Lazkaon beneditarren komentuan edo Easoko egoitzan egiten genituen ostiral arratsaldeko entseguak egin ondoren, patxada handigoz itzultzen nintzen etxera.

Badira musika eta matematika harremanetan jartzen dituztenak, baina abestea ez da inoiz matematika. Partitura batean oinarrituz, nahiz eta notazioa oso zehatza izan, zuzendari bakoitzak egiten du bere interpretazioa. Hori horrela da beti, baina are gehiago gregorianoa abesten denean. Notazioa ez da hain neurtua; gainera gregorianoa abesteko eskola ugari daude eta bakoitzak ditu bere ezaugarriak. Gure erreferentzia nagusia Solesmesko abesteko era izan da, baina Solesmesen bertan duela urte batzuk gregorianoa abesten zen era eta oraingoa ez dira berdinak. Gure zuzendariak, gainera, gregorianoa abesteko beste era eguneratuagoen eragina ere jasotzen zuten, beti izan dira aldaketak. Nire burua nahiko kartesianoa da, nahiago ditut gauzak argi eta ondo bereizita, zurian edo beltzean ikustea, grisean ikustea baino. Nahiago nuke, adibidez, episemak non egin behar diren eta zenbat denbora eman behar zaion zehaztasunez eta behin betiko jakitea, baina gregorianoan ez da hori gertatzen. Bestetik, gogoan ditut gure

zuzendarien aginduak: “Kolperik eman gabe *legato* zainduz, energiarekin abestu, hitzak bereizi, tristrofak eta azentuak markatu”; “Abestu leun, baina kementsu”; “Abestu arin, baina korrika egin gabe”. Paradoxak diruditen agindu horiek denak batera betetzea eta gainera “pazko edo mongolitoen aurpegiarekin” abestea, ez da batere erraza. Gauza horiek ez ditut ezkortasunez esaten. Bizitzaren ibilbidea ere ziurtasunik gabekoa da eta gregorianoa abestea horretaz jabetzeko eta grisak onartzeko eskola ona da.

Gure taldean bi zuzendari izan ditugu, biak adituak, baina maisu asko gaude. Neuk ezagutu ditudan abesbatzetan, zuzendaria izan da patroia bakarra. Gure taldean, aldiz, zuzendariak izan dira baita ere gidaritza, autoritatea eta azken hitza izan dutenak, baina gidaritza partekatua izan da. Lehen esan bezala, gregorianoa abesteko erak hain irekiak izanik, beti dago interpretazioak egiteko aukera, eta gure artean iritziak partekatu izan ditugu. Horrek entseguak oilotoki baten itxura hartzeko arriskua dakar, baina erabakia nork hartu behar duen argi badago oso aberasgarria da, izan ere guztion inplikazioa eta protagonismoa areagotzen baitu.



Bukatzeko, talde-giroa aipatu. Gustura gaude elkarrekin. Bakoitzak bere izaera du, batzuk hiztunagoak eta beste batzuk isilagoak; batzuk protagonismo gehiago eta beste batzuk gutxiago. Bromak ez dira falta, bromak egin eta jaso, baina beti ere onartua zarela eta besteak onartzen dituzula sentituz. Entseguak serio eta arretaz egiten ditugu, baina aukera egoten da entseguaren hasieran eta bukaeran gure gorabeheraz hitz egiteko eta mundua konpontzeko.

Bizitzaren ibilbidean, hainbeste urtetan, lagunarte onean eta gustukoa duzun gregorianoa abesteko aukera izatea opari handia izan da niretzat.

Joxe ARREGI OLAIZOLA

Pozik jaso nuen, duela 7 urte, Easo Kaper a Gregorianoako lagun en gonbita. Ohore bezainbat zitzaidan erronka, taldeak erakusten zuen mailatik oso urrun bainengoen. Baina taldearen harrerak eta aspalditik barnean neraman oihartzun isilak hasieratik bertatik atsegin bihurtu zidaten erronka.

Hamar urterekin, ezkila baten durundiak Arantzazuko seminariora erakarri ninduenen (1963), txorien doinuekin urturik itsatsi zitzaizkidan erraietan basilika berriko meza-doinu gregoriano



zaharrak. Foruko frantziskotar seminarioan (1966-1968) jaso nuen kantu-molde horren oinarrizko zenbait nozio, eta nobiziatuko urtean zehar (Zarautz, 1968-1969) murgildu nintzen, jabetu ere egin gabe, latinezko salmodiaren jario sarkorrean. Berehala, ordea, Vatikanoko II. Kontzilioak bultzaturiko liturgia-erreformak hartu gintuen, onerako eta ez hain onerako, eta han geratu zen hazia, ez garatu eta ez ito.

2018ko gonbitak eman zidan ezusteko parada frantziskotar seminarioko hauraren eta nobiziatuko nerabearen erraietan errotuak ziren meza-aire haiek eta askoz gehiago dastatzeko, lantzeko, arnasteko. Lagun-talde aditu bezain umoretsu eta jator honi zor diot. Eskerrak zuei, adiskideok! Eskerrak zuri bereziki, Demetrio! Zaharrari distira berria, ñabardurarik delikatuena eta printzarik argitsuenak, ateratzeko gai zara, fin eta irmo, kantu gregorianoarekiko duzun barne-sen eta jakintza paregabeak medio. Orain arin eta orain bare, orain eutsi eta orain utzi, leun eta irmo, hegalaria eta barrenkoi, beti airoso. Ondokoari entzunez, ahotsak batuz, arnasa banatuz.

Eta niretzat erabakigarria den koska bat aipatu nahi nuke: ezin ditut neure egin kantatzen ditugun piezetako hainbat eta hainbat letra, ezin ditut hitzez hitz “sinetsi”, ezin natzaie lotu. Baina hori ez zait funtsezko. Kantu gregorianoak hitzari hegoak zabaltzen dizkio, biziaren ufada librea hegaldada dadin, hitzari uko egin gabe baina aspaldiko hitzen esanahi objektiboari atxiki gabe. Doinua bera oto(h)itz bihurtzen zait, hunkidura dariola, arnasarik arnasa.

Santos SARASOLA ZELAIA

Norberto Almandozen omenaldiak eta Easo Abesbatzaren beharrak –eskerrak Peli Egañari eta Salba Rallori– egin zuten posible sortutako kantarien taldeak 30 urtez irautea. Aurretik Eskolania zoragarria sortzeko aukera izan genuen eta, horiek entzunez, gogora ekartzen zidaten Seminarioko hasierako urteetan gure ibilbidea tiple bezala. Txikitako eskolak aukerarik eskaintzen ez zuen horretan, zorionekoa gertatu zitzaigun kantuaren esperientzia. Musika gauzarik ederrenetako bezala sentitzen hasi ginen, sentimenduz beteriko kantu haiek bizirik. 12-15 urte haietako kantuen poz haiek areagotu egin ziren gregorianoa dastatzen hasi ginenean. Igandeetako eta jai berezietako eliz liturgiak, gregorianoz hornituak, sentiberagoak ziren as-

teguneke meza-kantuak baino. Eta latina ere ezagutzera eta maitatzera iritsi ginen. Eskerrak, beraz, Seminariori, gregorianoa den bitxi hori erakusteagatik!

Baina bizitzaren zurrunbiloan sartu ginen buru-belarri eta, kantatzeko denbora, aukera eta ekimena jarria genuen euskara eta hezkuntza indartzen. Almandozen omenaldiak eta Easo Abesbatzaren beharrak eraman gintuzten taldea sortzera, baina, egia esan, taldearen jarraipenean pentsatu gabe. *Te Deum* kantatu eta lanera. Esperientzia horrek esnatu zuen hain barruan genuen musika barnekoi eta otoitzezko hori. Zuzendaria aukeratu, taldea ugaritu eta kosta zitzaigun noiz bilduko ginen erabakitzea entseguak egiteko. Azkenik, ostiraletan! Berehala eman genuen ezagutzera gure kantuaren egokitasuna, gertutik hasi eta esparru oso zabalera zabalduz.

Gregorianoa zen muina, baina talde-lagunen bilgarri gertatu zen ekintza. Lagun berriak ere bai, jatorri ezberdinetakoak, sekula sesiorik ez, errespetuz beti, euskara adierazteko eta elkartzeko hizkuntzaz gozatuz, Lazkaoko beneditarrekin eta zistertarrekin otoitz egin, hiri eta herri askotan gregorianoaren espiritualtasuna transmititu, bidaiak sortu, lekuak jendez beterik entzuteko irrikaz, txalo ugari jaso, gure parranda mistikoaz eta ez hain mistikoaz gozatu...eta, ondorio atseginez, ezin utzi zahartzaroan ere.

Eta zergatik utzi behar dugu zeharo? Jarrai dezagun noizbehinka bilduz gregorianoan murgiltzen, liturgietan parte hartzen, hamar lagun garen bitartean, gero bederatzi eta azkenik zortzi. Ez ditugu gehiago gorapamen eta txaloak jasoko, baina gustura jarraituko dugu lagun-harremantetan eta barne-zentzu eta sentimendu espirituala iraunaraziko dugu. Beste beharren gain, ez al da ba espiritualitatea zaharrok behar duguna bizitza beteateko?

Zeruan ere honelako esperientzia izateko aukera bagenu!

Eusebio AGOTE ELOLA

Easo Kapera Gregorianoko korukide gehienok aspalditik ezagutzen dugu elkar. Gazte-denboran elkarrekin ibili ginen, baino gero urte askotan ez dugu hartu-eman handirik izan geure artean. Orain, 30 urtean gregorianoaz batera gozatzeari esker, lagun-talde ederra osatzen dugu. Hori bai, beti euskaraz edo latinez.

Urte hauetan, ni gero eta gusturago joan izan naiz entseguetara, lehenengo Lazkaoko beneditarren komentura eta gero Easo Abesbatzaren egoitzara. Ni neu ez nintzen behin ere izan gregorianoan oso aditua, baino nire koru-kide lagun gehienak bai, eta horrek asko lagundu zidan gregorianoan murgiltzen. Eta hau asko eskertuko diet beti nire lagunei.

Ez dakit noiz arte jarraituko dugun gregorianoa emanaldiak ematen, baino dudarik ez dut egiten gure talde-giro eder honek betirako iraungo duela gurekin.

Jexumari MUJKA ARAKISTAIN

Talde alai

Besteek idatzitakoa irakurri ondoren idaztea errazagoa omen da. Niri ez zait hala gertatzen ari. Besteok esaten duzuenarekin guztiz bat natorrelako. *Pares cum paribus*, alegia. *Pares* bai, baina jende berezi antzekoa ere bai. Frantsez batek aspaldi batean euskaldunez *-gens rara, omnibus gentibus dissimilis-* esandakoaren antzeko zerbait esan zuen gure Joxan bizkorrak behin Lazkaotik bueltan Legorreta paretik igarotzean: *Benetan duk arraroa gure talde hau: elkarrekin euskaraz bakarrik hitz egiten diagu, latina denok ulertzen diagu eta hor dagoen etxe horretan gutako inor ez duk sartu*. Hiru gauzetan arraroena zein gertatzen zitzaion galdetu beharrik ez genuen izan.

Mundua asko aldatuko zen 30 urte hauetan; gure talde hau, murriztu bai, baina aldatu apenas egin den. Mejoratu, izatekotan ere. Gure jarduna nostalgiarekin ere lotu du norbaitek. Nola ez. Gure hasiera haietan Lizeoan larunbat goizetan bilduz segitzeak ez zuela zentzurik, eta uztea erdi erabaki genuen; larunbat horretan bertan lau bikotek (hiru gizon talde honetakoak) Huescara jo genuen lagun batzuegana, eta Loarreko gazteluaren bisitan, bertako gela ederrenean gregorianoa kantatzeari –nolatan?– ekin genion Joxan, Santos eta hirurok. Bertaratu ziren batzuek bukatzean txalo jo zigutenean pena sentitu genuen, pena, bai, geroztik ezagutu ahal izan ditugun 30 urte eder hauek galbidean jarriak genituelakoan.

Gure taldean, musikak musika, bertako giroa izan da baliozkoena, jende on eta bereziarentzat apropos asmatua zirudien talde gaztearen kide-tza gozoa. Adinak ere ezin izan du mendean hartu, pentsa. Zuetako batzuei esker egin den bilduma honetan 30 urte hauek merezi duten oroitzapena izugarri ondo adierazia gelditu da,

guretzat bezala ondorengoentzat. Akats txiki bat: serioegia, akaso. Bromak eta irriak taldean izan duen funtzioa gutxitxo agertzen da. Hori hitzez egitea errazago gertatzen zaigu nonbait, idatziz baino. Eta hasi naizenez, eskari bat horren harira: norbaitek saiatu behar luke talde honetako kide-tza luzean bakoitzari eman duenaren arabera merezi lukeen izenordea jartzten. Animate!

Bukatzeko –letra txikiarekin baina–, frustrazio-bide txiki batzuk ere izan direla esan beharra dago. Normala. Nik bi bakarrik aitatuko ditut: Bat, Landetako azpeitiarrari bakarlarri izateko aukerarik egiaz eman ez izana, hori horrela izan da, eta Aizarnako txikiari talde honetan tekla gainean hatzak denbora gehien eduki dituen izan eta gero, organisten listan ez, noski, baina tonu-emaileenean sikiera lekuri ez ematea...

Eta amaitzeko, denon izenean: Gora Demetrio!!!

Joxe OSTOLAZA LINAZASORO

Kantu gregorianoa txikitatik asko entzuna naiz. Urte askotan apaizen akolitua izana: meza nagusiak, bezperak, hileta-elizkizunak, ... Ondoren Seminarioko urtetan gehien entzuten zena kantu gregorianoa zen. Entzun bakarrik ez, kantatu ere bai. Nik beti gustukoa izan dut kantu gregorianoa. Apaiz egin nintzen, handik urte batzuetara sekularizatu, eta urte askotan beste mundu batean bizi izan naiz.

Hogeita bost bat urtera, 1995ean, egun batean telefono deia: Easo Abesbatzak kantu gregorianoa talde bat osatu du, eta jende gehiago behar da. Animatzeko, eta taldeko bat gehiago izango nintzela. Ez nuen bi aldiz pentsatu. Baietz erantzun nuen. Horrela, gehiago pentsatu gabe, taldean hasi nintzen.

“Graduale triplex” liburua genuen oinarri bezala, baina hor azaltzen ez ziren abestiak fotokopian ateratzen ziren. Nik Oiartzungo Ikastolan lan egiten nuen, eta hango fotokopiak nik ateratzen nituen. Neu eskaini nintzen behar ziren kopiak ateratzeko eta artxibero lana egiteko. Hasi eta bukaera arte, hogeita hamar urtean hor jarraitu dut.

Urte hauek denak oso pozik pasa ditut. Leku berri asko ezagutu ditut. Gustuko lana egin behar nuen: musika gregorianoa kantatzea. Taldean, gure arteko harremanak oso onak izan dira, gure artean oso ondo eraman gara. Hitz gutxitan esateko: “oso esperientzia ona izan da.”

Miguel ARBELAIZ

Hogeita hamar urteko talde esperientzia aztertzeko modukoa da, batez ere XXI. mendean kantu gregorianoaren zentratutako abesbatza talde bati dagokionez.

Ia ezinezkoa da taldearen eraketan eta bilakae-ran parte hartu duten faktore guztiak zehaztea, baina horien artean, nire aldetik, bat nabarmendu nahi nuke. Hain zuzen, Aita Xabier Irastorzak zuzendaritza hartzearena. Gizon apala eta umila izanik, oso aditua zen. 56Kantu gregoria-noaren teoria eta praktika ondo uztartzen ze-kien. Batetik, gregorianoaren historiaren, egungo interpretazio korronteen eta liturgiaren ezaupide sakona zuen, eta bestetik, komentuko eguneroko bizitzan ezaupide horiek praktikan jartzeko eskarmentu handia zuen. “Docta simplicitas”. Ha-rekin aurrera egin genuen testuaren, melodiaren, haren egiturak eta “modoan” izaera arkanotetan

sakonduz. Orain, Demetriok ildo horretatik jarraituz eramaten gaitu, eta maila ona, presentzia, sakontasuna eta otoitz giroa mantentzera animatzen gaitu. Mila esker.

Egonaldi ahaztezinak egin ditugu Solesmes-en eta Madrilen. Musika onak hobeak egiten gaitu, bitzta sakonago batean parte hartzen dugu, gure harremanak hobetzen ditu. Ad meliora. Bizitzari zerbitzeko modu bat da. Ikasi, aurkitu, interpretatu, transmititu. Sentimenduek eragiten dizkizun musika. Bihotzik gabeko musikak ez du bizitzarik. Emoziorik gabeko pentsamendu batek balio gutxiago duela dirudi. Guztion onerako, emozioz beteriko une argitsuak bizi izan ditugu.

Eskerrak eman nahi dizkiet gure ahalegin hone-tan lagundu diguten guztiei, bere laguntza sutsuagatik. Gogoan ditut bereziki, orain gure artean ez dauden hildako taldekideak. Eta, nola ez, Joxan nire anaia.



... in modo . . . ANNA

... in anno annu...
... admodum ...
... omnia ...

